



Sakandartutako mundutarrak

Munduan barna jaiotako 2.410 sakandar daude / 2-5



Zabaleta, Binakako final handirako prest / 18-19

Elkarbizitza helburu, Irurtzunen kulturen arteko zikloa abiaraziko dute larunbatean / 10-11

Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako ordenantza Altsasuko Udalean / 13

Ibarreko hamabost kontzejuak berritzeko 55 hautetsi aukeratu beharko dira maiatzaren 28an / 7

Kepa Gordok 9 aldiz igoko du San Miguel, exoeskeletoa erosi ahal izateko erronka solidarioan / 17

Andra Mari kadete mailako Nafarroako sokatira txapeldun, eta Iñigo Aritzak brontzezko domina / 18

Javier San Felipe Larrea altsasuarra zinema eta telebista ekoizpenetan argi teknikaria da / 23

Migrazioa, onura iturri

Gobernuaren txosten baten arabera, Nafarroak migratzaileengandik beraietan inbertitzen duenaren bikoitza jasotzen du. Aberastasuna sortzeaz aparte, osasun zerbitzuak gutxiago erabili, zahartzeari galga jarri eta populazioa egonkortzen du

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA
Migrazio Politikak eta Justizia Departamentuak *Nafarroako Foru Komunitatean migratzaileek duten ekonomia eta demografia inpaktuari buruzko txostena* argitaratu zuen ilbeltzaren 20an. Eduardo Santos Itoiz kontseilariak argitu zuenez, "txostenaren helburua ez da migrazioaren eztabaida gertakari utilitaristara mugatzea. Gure departamentuak eta gobernuak beti defendatu dugu migratzea pertsona guztien oinarritzko eskubide gisa. Baina kultura eta gizarte aberastasunaz haratago, datuen argitan, txosten honek agerian uzten du biztanleria migratzaileak guztion ongizateari egiten dion ekarpen ukalezina".

Aipatu txostena Jose Moises Marin ekonomista, Nazioarteko Harremanetan adituak eta eta Anabel Suso soziologo eta ikerzaileak egin eta koordinatu dute. Egileek azpimarratu dutenez, txostenaren berritasun nagusia hazkunde ekonomikoan duen eragina da. Migratzaileek gabe Nafarroa baten hazkundera nolakoa izanen litzatekeen aztertu zuten. Ondorioztatu zuten migratzaileak Nafarroako ekonomian parte hartzearen onura ekonomiko globala Barne Produktu Gordinaren (BPG) %4ko hazkunde gehigarria izan zela 2013 eta 2021 artean.

Martinek azaldu duenez, "persona migratzaileen bultzada ongizatearen hazkunderako fak-

tole erabakigarrietako bat izan zen. Baliteke pandemiak 2020an izan duen eraginak emaitzak desitxuratu izana; izan ere, 2013 eta 2019 artean, migratzaileek Nafarroako BPGari egindako ekarpena migrazioerik gabe espero zitekeena baino %7,2 gehiago izan zen". Datuek, bestalde, erakutsi dute migratzaileen parte hartzeari esker Nafarroako ekonomia urteko BPGren %0,5 hazi zela 2012 eta 2021 artean.

Gainera, Nafarroako gizarteak biztanleria migratzailean inbertitzen duenaren eta hortik jasotzen duenaren arteko saldoa argi eta garbi desberdina da. Foru Erkidegoaren aurrekontua BPGren %23 inguru zen 2020an, eta Nafarroako migrazioaren kostu fiskala BPGaren %0,23. Biztanleria migratzaileak Nafarroari egiten dion urteko ekarpena BPGaren urteko %0,5 da. Beraz,

"DATUEK GEZURTATU EGITEN DUTE MIGRATZAILEEK BERTAKOEI LANA KENTZEN DIETELA"

NAFARROARA MIGRATU DUTENEN LAN BALDINTZAK NABARMEN PREKARIOAGOAK DIRA

biztanleria migratzaileak Nafarroak bertan egiten duen inbertsioaren bikoitza itzultzen du.


Txostena egiteko biztanleria migratzaileetat hartu dute 2021ean atzerriko nazionalitatea zuena, hau da, 71.441 pertsona inguru, Nafarroako biztanleriaren %10,8. Espainiatik kanpo jaiotako pertsonen kopurua Nafarroan handiagoa da: 108.522 pertsona inguru, biztanleriaren %16,4.

Ez dute lanik kentzen, ezta soldatarik jaisten ere


Hazkunde ekonomikoa aztertzeaz aparte, ikerketak migrazioek eragiten dituzten beste bost aldagai aztertzen ditu: kontsumoa, lan merkatua, etxebizitza, zuzenean egotz daitezkeen zerga sarrerak eta migratzaileei zuzenean egotz dakiekeen gastu publikoa.


Literatura akademikoak eta enpirikoak planteatzen dutenarekin eta mundu osoan garatu den guztiarekin bat etorritz, txostenaren beste ondorio nagusietako bat da Nafarroan biztanleria migratzaile gehiago kontratatzeak ez diola eragiten bertako biztanleen langabezia tasa handiagoari. "Datuek gezurtatu egiten dute migratzaileek bertako biztanleei lana kentzen dietela dioen eserra. Analisisiek eta azterketek ez dute datu hori bermatzen Nafarroarako, beste toki batzuetarako bermatzen ez duten bezala", azaldu du ekonomialariak. Are gehiago, txostenaren arabera, biztanleria migratzailearen pre-

Sakanako migratzaileak




Atzerritarren banaketa Sakanan, sexu 2021





EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com
Arkinoturri Industrialdea · Olazti


GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika moderna




Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



Ozeania eta aberrigabeak



aren arabera



sentziak lan merkatua dinamizatzen du, eta kontratazio tasak erritmo berean hazten dira, bai tokiko biztanleendako, bai iritsi berriendako.

Era berean, lan merkatuan migratzaile gehiago edo gutxia-

go egoteak ez du eraginik soldatetan. "Ez dago eragin esanguratsurik. Lan-merkatuari dagokionez, zenbait sektore espezifikoan egindako 25 erregresio inguruk migrazioak lana kentzen duela, langabezia gehiago sortzen ez

duela eta soldadak jaisten ez dituela dioten baieztapenak baztertzen dituzten emaitzak erakusten dituzte", azpimarratu zuen Martinek. Hala ere, azterlanaren arabera, biztanleria migratzaileak zerbitzuetan par-

te hartze handiagoa izateak emakumeen soldaten igoerarekin modu esanguratsuan eta positiboan erlazionatzen du.

Ikerketak agerian utzi du, halaber, Nafarroako migratzaileen lan baldintzak Espainiako nazionalitatea dutenak baino nabarmen prekarioagoak direla: bertako biztanle gehienak (%79) kontratu mugagabea duten lanpostuetan daude, eta atzerriarren artean, berriz, erdiak baino gehiagok (%57) aldi baterako kontratua dute. Lanaldiari dagokionez, berriz ere, lanaldi osoa kasu guztietan nagusi bada ere, Espainiako nazionalitatea duten eta lanaldi osoa duten pertsonen proportzioa handiagoa da Espainiako biztanleen artean (%86) atzerriarren artean baino (%79).

Era berean, Nafarroan bizi diren migratutako pertsonak maizago pairatzen dituzte langabezia egoerak, eta kalteberago bihurtzen dute. Hala ere, Susok adierazi zuenez, babes sozialeko datuetan ez da inolako desorekarik sortzen, migratzaileek gizartean duten pisua baino ez dute adierazten, eta ez dute dagokien prestazio gehiago jasotzen, hau da, Nafarroako prestazio guztien %11,2.

Zahartzeari eta despopulazioari galga

Demografiako alderdiei erreparatuta, Susok atzeritar jatorriko biztanleen papera nabarmendu nahi izan zuen, batez ere lurraldea biziberritzean. "Nafarroan, beste erkidego batzuetan ez bezala, biztanle atzeritar asko landa eremuan bizi dira. Nafarroan atzerriko nazionalitatea duten biztanleen %40 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi dira. %58, 20.000 biztanletik beherako udalerriak kontuan hartzen baditugu. Erriberako eta Erribera Garaiko udalerrietan bizi da batez ere. Beraz, biztanleria migratzaileak lanekua ematen dio landa inguruneari, zahartzea eta lurralde despopulazioa geldiarazten ditu", ikertzaileak adierazi zuenez.

Aldaketa zikliko oso garrantzitsurik ez badago, "migrazio saldoek positiboa izaten jarraituko dute Nafarroan 2023ra arte; horrek esan nahi du 7.000 migratzaile berri inguruk biztanleria aktiboa urtero handitu eta gaztetuko dutela. Horrek Nafarroako biztanleriak pairatzen

duen tasa negatibo handia iraultzen laguntzen du", azaldu zuen Susok. Hori ere funtsezkoa da ongizate estatuari eusteko; izan ere, biztanleria migratzaile gehiena produkzio adinean dago, eta, neurri handi batean, 65 urtetik gorako atzeritar jatorriko biztanleriaren pisu txikiaren ondorioz, Gizarte Segurantzak 2021ean Espainia osorako eskura zituen datuek erakusten dute atzeritarrek gizarte-babeseko sistema horren onuradun gisa duten parte hartzea oso txikia zela: pentsio mota hori jasotzen duten 9.852.529 pertsonetatik, %98,3 nazionalitate espainiarrekoak ziren, eta atzeritarrak, berriz, onuradun guztien %1,7 baino ez.

Osasunean gastu txikiagoa eta ekarpen fiskal bera

Txostenaren egileek azaldu zuten portaera fiskalaren analisia, saldo osoan, gainerako biztanleen saldo fiskalaren oso baliokidea dela. "Migratzaileei egotz dakiekeen gastuaren %77 biztanleria migratzaileak berak finantzatzen du. Zifra horiek bertakoen oso antzekoak dira; izan ere, 2021ean, Nafarroako biztanleriaren %80k ordaintzen dituen zergak baino gizarte zerbitzu gehiago jasotzen ditu, eta hori birbanaketaren funtsezko elementua da", Martinek azaldu zuenez.

Txostenaren beste datu nabarmenetako bat da biztanleria migratzaileak kostu txikiagoa eragiten diola Osasun Publikoari bertako biztanleriak baino, nahiz eta atzerriko biztanleria Nafarroako biztanleriaren %10,8 izan, Nafarroako Osasun Zerbitzuari sortzen dizkieten gastuak osasun inbertsioen guztizko kostuaren %5,1 baino ez dira. Migratzaileek, beren adin tarateagatik, osasun zerbitzuak gutxiago erabiltzen dituzte. Ospitaleratzeen eta larrialdietako arretaren ehunekoak berdinak badira ere, askoz ere hitzordu gutxiago dituzte espezialistekin eta lehen mailako arretarekin.

Oro har, biztanleria migratzaileak Nafarroako aurrekontu osoaren %1 baino gutxiagoko kostu garbia sortzen du baliabide publikoetan, eta zuzeneko eta zeharkako zergei dagokienez, Nafarroako biztanleria migratzailea diru-kutxa publikoetan laguntzen ari da 148,6 milioi eurorarekin, 2020ko diru sarrera publikoen % 4,1 2020an.

"Oso ongi moldatzen naiz bezeroekin"

Brasilgo Maringan jaiotako etxarriarrak 38 urte ditu. "Hemen herri handia da Maringa, baina Brasilen 400.000 biztanleko herri bat oso txikia da"

ETXARRI ARANATZ

Non dago Maringa?

Brasilen, Argentina eta Paraguayo muga ondoan. Maringa toki tropikala da, normala da bero egitea, 11 hilabete udan gaude.

Noiz erabaki zenuen sorterrria uztea?

Gaztetan mundua ezagutu nahi nuen, hondartza, ingelesa ikasi, beste kultura batzuk ezagutu. Lehenengo gurutzatze batean lan egin nuen, urtebete. Ondoren, Perura joan nintzen.

Zergatik joan zinen Perura?

Nire emaztea perutarra delako. Perun zenbat denbora egon zinen?

Hiru urte eta erdi bizi izan nintzen han.

Nolaz bukatu zenuen Etxarri Aranatz?

Nire amaginarreba hemen bizi zen. Alaba Perun jaio zen eta hona bizitzera etorri ginen.

Zenbat daramazu hemen?

Sei urte daramatzat hemen bizi nintzen. Semea hemen jaio da.

Etoritzeko problemarik izan zenuen?

Ez nuen izan problemarik.

Tramite asko egin zenituzten?

Bai, normala da paper asko egitea. Beti bezala. Pazientziak hartu behar! Denbora asko pasa zen paperak egiteko.



MARCOS ROCHA
ULTRAMARINOS RAZKINEKO LANGILEA

Perura edo Brasilera joan zara bueltan?

Ez. Pandemia etorri zen eta ez. Nire familia guztia han dago. Orain prezio guztiak igo dira, baina badaukat esperantza itzultzeko, Peru edo Brasil bisitatzeko. Bizitzeko ez, familia bisitatzera joango naiz. Hemen hobe txikiekin.

Etorri eta lanera?

Bai. Familiaren denda hasi nintzen lanean. Hemen bizi, eta euskara ikasten hasi nintzen.

Euskara ikastera animatu zinen?

Bai. Seme-alabak ditut. Nire alaba etorri zen 18-19 hilabeterekin eta txikiarekin parkera atera eta batzuek ez zuten erdara ulertzen, besteak bai. Eta pentsatu nuen hoberena zela euskara ikastea, pixka bat hitz egitea. Alabarekin praktikatu dut parkean eta beste lekuetan.

Zer moduz denda?

Jatekoak, edatekoak, garbitzekoak, txukuntzekoak eta denetarik saltzen ditugu. Azken urtean guztiaren prezioak igo dira. Guztia kontrolatzeko lan astunastuna da.



MOAEED MUHAMMAD
NEXT MOVIL DENDAKO JABEA

"Kebabeen lanean nengoeren bitartean informatika ikasi nuen"

Altsasuarrak 29 urte ditu eta Pakistango Punjab probintzian jaio zen, Gujrat hirian; Kaxmir eta Indiako mugan

ALTSASU

Nolaz bukatu zenuen Altsasun?

Aita etorkizun hobe baten bila atera zen. Garai haietan Europara iristen ziren moduan sartu zen. Hemen bere egoera erregularizatu zuen. Ondoren familia berriz elkartzeko prozesua egin zuen eta familia guztia etorri ginen.

Altsasura?

Logroñora iritsi ginen. Aitak Lakuntzan lan egiten zuen eta Logroñotiketortzen zen. Hemen pisua opatu eta Altsasura bizitzera etorri ginen. Logroñon urte edo urte eta erdi egon ginen. 13 urterekin iritsi nintzen, beraz, bizi erdia baino gehiago hemen daramat.

Familia berriz elkartzeko tramiteek luze jotzen dute.

Aita hemen eta gu Pakistanen. Beti aitaren hutsunea sentitzen genuen, zeren bere oporretako 15 edo 20 egun besterik ez zen joaten gu bisitatzera. Luzea izan zen, tramite ugari daudelako, paper asko... Familia berritoki elkartzeko bizpahiru urte pasa ziren. Eman zizkiguten paperak eta bidaiatu eta etortzeko aukera izan genuen. Dena berria izan zen guretako, ez genekien hizkuntza, ez genuen inor ezagutzen. Nahiz eta Logroñon gure nazionalitateko jendea zegoen eta haiekin gure hizkuntzan hitz egin genezakeen. Dena aldaketa izan zen.

Ikasketak, zer?

Urte eta erdian gaztelania ikasi nuen, defendatzeko moduan, baina ezin nuen inorekin elkarrizketa bat izan. Iritsi nintzanean ez nekien gaztelaniarik eta ez nuen hemen kuadrillarrik; Altsasura iritsi ginen aurreneko pakistandarrak ginen. Edozeinekin hitz egin beharra nuen, eta gaztelania ikastea beste erremedioirik ez nuen. Institutuan egon nintzen, baina hizkuntza falta nuenez, ezin nuen ikasturtea gainditu. Lanbide Heziketa edo zerbaitegiteko esan zidaten. Goierri joan eta bi urtez mekanika ikasi nuen eta elektromekanika erdi mailako gradua egin nuen ere. Elektrizitatea gehiago gustatzen zitzaidan. Nahikoa gaztelania ikasi nuen eta jende aurrean lan egitean are gehiago ikasi dut.

Zuk zabaldu zenuen denda hau?

Lehenik Agricola Sakanan praktikak egin nituen eta, ondoren, kontratatuta ia hamar hilabetez lanean egon nintzen. Aitak Foru plazako kebab-a muntatu zuen eta hura hartzea eskaini zidan. Ez nekien autonomo izatea zer zen ere. Aukera hori duzu. Esan zidan aitak. Azkenean, ausartu, autonomo egin eta kebab-a zabaltea erabaki nuen. Pitteka-pitteka, ongi joan zen. Asteburuak ziren, lan desberdina zen. Ikasi-

takoarekin lotura zuen zerbaite behar nuen, eta han lanean nengoeren bitartean informatika ikasi nuen. Ikasi nuen, baina praktika falta nuen. Praktikak egin eta ondoren denda zabaldu nuen.

Noiz zabaldu zenuen Next Movil?

2016an. Duela zazpi urte.

Kebab-a eta denda zabalteko laguntza edo aholkularitzarik jaso zenuen?

Inork ez zidan aholkurik eman. Hartutako kolpeen bidez ikasi nuen. Ez nekien zer ziren BEZak, Gizarte Segurantzak, zer da? Bai-menak eta beste... Ez nekien autonomo izatea zer zen ere. Ezer ezen ideiarik ez nuen hasi nintzanean. Dena pitteka-pitteka ikasi behar izan nuen. Kudeatzaileei galdetuz ikasi nuen. Haiek guztia egiten zuten, baina nik ez nuen ezer ulertzen. Niri giltza eman eta esan zidaten: honek funtzionatu beharra du. Banekien aurrera egin beharra nuela.

Denda zer eskaintzen duzu?

Mugikorrak, ordenagailu eramangarriak eta tabletak konpontzeko zerbitzua eta denetarik saltzen dut. Giltza baten botoia hautsiarekin etortzen bazaizkit soldatzeko eskatuz, uzteko eskatzen diot... saldu baino laguntzen, zerbitzua eskaintzen saiatzen naiz. Herri batean gaude eta tontakeria horregatik jendea ez

Pandemian zer nabaritu zenuten?

Beste mundu bat zen. Desberdina da pandemia eta pandemia ondorengoa. Lehen bezala jendea normal etortzen da. Hasieran, musukoa atera eta jendea beldurrez zegoen. Baina hori normala da kasu batzuetan, pertsona musukoarekin etortzen bada, errespetatu eta aurrera.

Lana eta familia kontziliazioa, zer moduz?

Bai. Lanetik atera ondoren familiarekin parkera joaten gara. Eta etxean zerbait laguntzen dut, zerbait garbitu edo txukundu. Oso ongi moldatzen naiz.

Zer moduz bezeroekin?

Oso ongi, oso gustura. Oso ongi moldatzen naiz. Brasilgo ohituratik desberdinak dira hemengoak, baina oso-oso pozik.

Brasil buruz galdetzen dizute?

Bai. Elurra egiten duenean esaten dute: Marcos, Brasilen ez dago horrelakorik! Brasil oso beroa da, baina euri asko-asko egiten du. Desberdintasunak daude.



MOULAY RACHID RADDADI SAAD ANUAR
ILE APAINDEGIKO NAGUSIA

"Zabaltzean jendea erraz etortzen zen, aurretik bezeroak baintituen"

Makina bat sakandarrek turismo bidaia egin izan du Marrakexera. Han duela 48 urte jaiotako altsasuarrak 35 urte darama ile apaintzaile gisa lanean. San Joan kalean du lantokia

ETXARRI ARANATZ

Hiritik ateratzea erabaki zenuen.

Txikitatik bidaiatzea gustatu zait. 12 urteetatik Maroko goitik behera zeharkatu dut. Espainian, aldi bakoitzean toki batera noa. Hemen, iparraldean, lasaiago nago. Gustatzen zait. Bilbon egon nintzen eta Nafarroagatik aldatu nuen.

Noiz utzi zenuen Maroko?

1999ko akaberan, 2000. urtean. Hona, gertu, etorri nintzen zuzenean, Zumarragara. Han lagun bat nuen eta harengana etorri nintzen. Han hilabete eman nuen eta Bilbora lanera joan nintzen. Han ia 16 urte eman nituen lanean.

Nolaz bukatu duzu Altsasun?

Bilboko negozioa, ile apaindegia, saldu eta Marokora joan nintzen, han bizitzeko, guraso eta seme-alaben ondoan. Gauzak gaizki atera ziren eta, atzera, bueltan etorri nintzen. Ezin nuen Bilbora itzuli, lotsa sentitzen nuen: lehen negozioa nuen, galdu nuen... Eta hiriz aldatzea erabaki nuen. Iruñera joan nintzen. Han urte batez lan egin nuen. Bi tokinituen aukeran: Zangoza eta Altsasu. Zangoza ez zitzaidan gustatu, herri oso zaharra iruditu zitzaidan, ez du dendarik ere. Altsasu ikustera etorri nintzen eta ile apaindegi bat falta zela ikusi nuen. Hemen hasi eta askoz hobe nago.

Zenbat denbora daramazu Altsasun?

Aurten bost urte eginen ditut.

Bakarrik etorri zinen, edo familiarekin?

Bakarrik. Familia berriz elkartzeko ahalegina egiten ari naiz. Seme-alabak ekarri nituen garagarrean. Orain emaztea eta beste seme txiki bat ekartzeko zain nago. Autonomoa naiz eta gobernuak ez dit laguntzen. Paper asko eskatzen dituzte, nomina igo behar duzu asko irabazten ari zarela erakutsi... galbidea da. **Seme-alabak ekartzea asko kosta zitzaizun?**

Bai. Pandemiako berrogeialdia ezarri zutenean atzera bota zuten eskaera. Zergatik galdetu eta esan zidaten ile apaindegia itxita nuelako zela. Baina garai hartan guztiok genuen negozioa itxita, hilabete edo bi hilabete egon ginen berrogeialdiatik negozioa itxita. Eta ordaintzen segitu nuen. Seme-alabak ekartzeko asko sufritu dut, eta sufritzen segitzen dut.

Emaztea eta semea ekartzen saiatzen zenbat denbora daramazu?

Altsasun 2019an hasi nintzen lanean eta 2020an eskatu nuen familia berriz elkartzea. Ea zenbat gelditzen den. Oxala baietz erantzun, sufritzen ari bainaiz.

Harremana nola mantentzen duzu?

Egunero hots egin behar dut eta hitz egiten dugu. Seme-alabek oporrak dituztenean, udan, hara jaitsiko naiz, familia eta gurasoak ikusteko. Hilabete ematen dut, ezin dut gehiago egon, lana dut eta negozioa zaindu beharra dut.

Ile apaindegia zabaltzeko laguntzarik edo aholkurik izan zenuen?

Nafarroako Gobernuak pixka bat lagundu zidan, 2.000 euro eman zizkidan. Eta aurreztuta nuenarekin zabaldu nuen negozioa. Aurreneko urtean autonomo kuota 50 eurokoa izan zen, hori ere laguntza zen, kuota baxuagoa baitzen. Orain kuota normala ordaintzen dut.

Gizonezkoen ile apaindegia zabaldu zenuen.

Hala da. Bizargina ere banaiz. Oxala neskaren bat nirekin lanera etorriko balitz, ile apaindegi unisex-a egin nahi dut. Nik gizonezkoen ilea mozten dakit bakarrik, gizonezkoekin konformatzen naiz. Baina emakumezkoekin lan egiteko norbait baletor, ongi, hemen ere behar dut. Arazoa da.

Dagoeneko bezeroak dituzu.

Bai. Lehen atera den gizon horren (bezero bat) iloba Iruñean nuen ile apaindegira joaten zen ilea

moztera. Iruñean Altsasutik joaten ziren bezeroak ezagutu nituen. Hitz egitean herria aipatzen zuten eta Altsasun ile apaindegia zabaltzeko esaten zidaten, marokoa ile apaindegia falta baitzen. Altsasu ezagutu nahi izan nuen, gustatu zitzaidan eta hemen nago. Hemen zabaldu nuenean, jendea erraz etortzen zen, aurretik bezeroak baintituen. Ez nuen asko sufritu. Beste toki batzuetan negozioa zabaldu eta zain gelditzen zara, ea bezeroak lortzen dituzun. Hemen, jainkoari esker, jendea banuen.

Bezeroekin, beraz, ongi.

Oso ongi. Jendea oso atsegina da. Jainkoari esker, bezero onak ditut, ea horrela segitzen duen.

Laguntzailea ere baduzu.

Hotzarekin ez dago hainbeste lanik, udan lan gehiago izaten dut eta orduan laguntza premia handiago dut. Orain, lasaiago.

Aita zara eta seme-alabak hemen dituzu. Lana eta familia kontziliazioa, zer moduz?

13:30ean itxi eta janariak prestatu behar ditut seme-alabak etortzen direnerako, berotu besterik ez. Gauzak gauez egiten ditut. Orain ramadanarekin zaildu egiten da. Arratsaldean guztia prestatu behar da, dena beroa. Egun osoa jan gabe daramazu eta jatekoak prestatu behar dira. Eta hurrengo egunerako gauzak ere prestatu behar ditut, gero lan egin ahal izateko. 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara bainago lanean, ordu asko. Seme-alabak ere ramadana egiten ari baitira. Haurrak dira eta ez dakite, ez didate laguntzen. Eta nik hemen eta etxean lan egin beharra dut. Emaztea faltan dut, ea aurten etortzen den. Zain nago. Ea horrela lan pixka bat kentzen dudan.



dadila Iruñera edo beste nonbaitera joan. Ahal bada, konpontzen edo zerbitzua eskaintzen saiatzen gara, bezeroa pozik uzteko.

Dendan bakarrik zaude?

Anaiak eta Jenik nirekin lan egiten dute. Nik konponketa lanak egiten ditut eta jendea hartzen dut. Jeni ere jendearekin aritzen da. Nire anaia gor-mutua da eta berak konponketak egiten ditu, teknikoa da, uneoro konponketak egiten ari dena.

Lana eta familia bizitza kontziliazko, zer moduz?

Orain ia herriko gainontzekoen antzeko ordutegia dut. Logikoki, atek zabalik lanean ordu asko egiten badituzu, atsedena hartu beharra duzu ondoren ongi lan egin ahal izateko. Zeren etenaldirik egiten ez baduzu, lehertuta bukatzen duzu edo zerbitzu txarra emanen duzu gehiago ezin duzulako. Larunbat goizetan zabaldu baina gainontzeko aste-burua jai hartzen dugu. Agian ezin dut oporretan hilabete osoa joan, edo hamabost egun segidan, ados, baina familiari denbora eskaini diezaioket.

Zer moduz bezeroekin?

Ongi. Orokorrean, jendearekin oso pozik. Erlazioa, adiskidetasuna da gehiago. Guztiak ezagutzen dituzu, atetik sartzean badakizu zer nahi duten.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Alaskaenean, barne muinetik

Castillo Suárez atzera berriz, ari da *boloak* egiten bere azken poemategiaren aitzakian.

Alaska du grazia, eta izenburuak toki urrun bezain hurbil, izoztu bezain epel eta erreal bezain magiko batera garamatza. Iragan hurbila eta oraina, desirak eta oinazeak barne besarkatzen dituen leku, edo ez-leku bat dugu Alaska hau, modernitatearen eta dekadentziaren aztarnak batera dakartzana.

Etzegarateko toki, jatetxe, ostatu, hotel honi hainbat hamarkadatan bizitza jario zitzaion azal mintza guztietatik; egun, ordea, langa baten barruan, gatibu da, garai baten lekuko isila. Bernardo Atxagak gertalekutzat hartu zuen *Soinujolearen semea* eleberrian, eta orain Castillok itzuli digu toki hau, doluz eta zauriz, baita bizitze grina osoz ere, eta halakoa izan zuen liburuak *première-a*, Altsasuko beilategi edo tanatorioan, natural-naturala.

Oraingoan hitzurre batez hornitu digu liburua poetak, eta hastapena iradokiorra da guztiz:

"Lehenago edo geroago iristen da negua. Elurra ez, ordea". Ondoren ageri dira berrogeita hamar pasa olerki, nolabait ere

TOKI URRUN BEZAIN HURBIL, IZOZTU BEZAIN EPEL ETA ERREAL BEZAIN MAGIKO BATERA GARAMATZA

lehenago *Irautera* poemategiaren ildoari jarraitzen diotena. Suárezek berak aitortu du *Irautera*-ren bonus track-a dela honako hau, eta bonus track-ekin ibiltzea arriskutsua dela. Bada, uste dut idazlea onik atera dela onartutako erronkatik.

Olerki sortaren muina berriz ere (des)amodioaren aldarreak dira; olerkariak irudi ausart eta txundigarrien bidez azaltzen ditu harremanen ondoko orbanak. *Alaska* honetan Zu omnipresente, poliedriko eta anizkoiak zipiritintzen du giroa, eta naturako elementuek, hotz larriaren tonuek, baita animaliek nahiz zuhaitz-landareak nabartzen dute atmosfera tinko eta sarri bat.

Edizio lana ederra da, azaleko irudia zoragarria, oihartzun sakonak eta irudi emankorrak nonahi, horra horietako bat: "Eta tarteka elurra zikindu dezagun berriz garbi egongo den ziurtasunez".

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

MARI-KRONIKA

ERRAFAILAK SAKANAN

Aurreko larunbatean Errafailak, antolatutako MARI FESTA jaialdi ez mistoa ospatu zen. Bertan, eskualdeko eta Euskal Herriko jendea batu ginen gau zoragarri eta paregabeaz disfrutatzen.

Jaialdia emakumez* osaturiko taldeek girotu zuten, eta gero DJ-ekin amaitu zen gaua. Kontzertuen ostean, MARI SASKIaren zozketa egin genuen, Goierriko lagunek eraman zutelarik. Espazio segurua sortu

genuen, eta jendearen arteko ahizpatasuna izan zen nagusi. Ez zen inolako erasorik jazo, ezta inolako iskanbilarik gertatu. Baina, jaialdiaz harago, gauza askoz gehiago izan zen MARI FESTA.

Lehenengo unetik, jaia argitaratu zenetik, iruzkin negatibo, galdera eta erreazio ezberdinak jaso izan ditugu jendearen partetik. Sakanako lehenengo jai ez mistoa izanik, arraro edo ez beharrezkotzat jo zuten pertsona askok. "Jaiak jada espazioa seguru bat dira... Zertarako behar da gune seguru bat? Zergatik ezin dira gizonezkoak joan?..."

Aspaldi aldarrikatu izan dugu espazio asko ez direla

neska* gazte eta sexu disidenteentzako seguruak, eta jai giroak askotan arrotzak, bortitzak eta deserosoak suertatzen zaizkigula. Aisialdiko espazio horietan ez genuke horrela sentitu behar, eta horien gaineko hausnarketak beharrezkoak dira denok gozatu ahal izateko eta ez gutxi batzuek, ohikoa den bezala.

Ondorioz, nahiz eta aurrera pausoak eman Sakanako jai giroen gaineko hausnarketa irakasgai pendiente bat da; beraz, ez genuke zertan justifikatu behar MARI FESTA bezalako aisialdi alternatiboa.

Honenbestez, Sakanan guztiontzako espazio seguruak, antifaxistak, askeak eta transfeministak eraikitzen jarraituko dugu. Hau hasiera besterik ez da!

Azkenik, eskerrak eman nahi diegu Etxarriko Gazte Asanbladari haien espazioa uzteagatik, Perlata, Zaunka eta Dj Pezoni gaua girotzeagatik, eta bertara etorri, edo bestelako era batean guri babes, laguntza eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztiei.



OBJEKTIBOTIK



Ekaitz Santazilla
@ESantazilla

ASTELEHEN GOIZERAKO GALDERA HISTORIALARIEI:

Zergatik ez dago #Barranka-n eta #Ergoiena-n etxe armarridun bakar bat ere?

#Burunda-n asko daude, eta #Arakil-en nahikotxo.

#Sakana #Nafarroa

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Oporrak direla eta, GUAIXE heldu den astean asteazkenean argitaratuko da. Gutunak jasotzeko epea astelehenero 10:00etan itxiko da, eta zorion agurrak bidaltzeko epea, berriz, astelehenero 13:00ak arte egonen da zabalik.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Kontzejuetarako 55 hautetsi aukeratuko dira

Ibarreko 15 kontzeju berrituko dira maiatzaren 28an. Populazioaren arabera hautetsi gehiago edo gutxiago aukeratu beharko dituzte kontzeju bakoitzean, bat eta bost arteko kopuruak dira Sakanako kontzejuetan. Guztira 55 hautetsi aukeratuko dira

SAKANA

1.345 sakandarrek Nafarroako Parlamentuko eta Udaletako hauteskundeez aparte, kontzejuak osatzeko hauteskundeak dituzte maiatzaren 25ean. Aizkorbek kontzejurik ez duenez eta bere esku-menak Arakilgo Udalak kudeatzen dituzenez, 15 kontzeju berrituko dira maiatzeko azken igandean. 15 kontzejuak osatzeko 55 hautetsi aukeratu beharko dituzte. Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretu bidez, kontzejuetako hauteskundeak deitu ditu dagoeneko.

Kontzeju bakoitzeko biztanleriaren arabera hautetsi gehiago edo gutxiago aukeratu dira. Hala, 50 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan kontzeju irekia osatu eta presidentea aukeratu dute. 50 eta 999 biztanle arteko herrietan kontzeju presidentea eta lau bokal aukeratu dituzte. Mila biztanletik gorako kontzejuetan, berriz, presidentea eta sei bokal aukeratu dira.

Boto txartelak

Maiatzeko hauteskunde hitzorduan Nafarroako Parlamenturako boto paperak eta gutun azalak sepia kolorekoak izango dira. Udal hauteskundeetakoak, berriz, txuriak. Eta, azkenik, kontzejuetakoak berde kolorekoak. Eremu

Kontzejuetako 2023ko hauteskundeak

Kontzejua	Biztanleak	Hautatu beharrekoak
Egiarreta	84	Presidentea eta lau bokal
Ekai	37	Kontzeju irekiko presidentea
Errotz	67	Presidentea eta lau bokal
Etxarren	159	Presidentea eta lau bokal
Etxeberri	61	Presidentea eta lau bokal
Hiriberri Arakil	118	Presidentea eta lau bokal
Ihabar	129	Presidentea eta lau bokal
Izurdiaga	169	Presidentea eta lau bokal
Satrustegi	55	Kontzeju irekiko presidentea
Urritzola	17	Kontzeju irekiko presidentea
Zuhatzu	44	Kontzeju irekiko presidentea
Lizarraga	168	Presidentea eta lau bokal
Dorrao	119	Presidentea eta lau bokal
Unanu	86	Presidentea eta lau bokal
Lizarragabengoa	32	Kontzeju irekiko presidentea

euskaldunean eta mistoan eredu guztiak elebidunak izanen dira, eta eremu ez-euskaldunean, berriz, gaztelaniazkoak.

Azkenik, maiatzaren 28an hauteskunde mahaiak osatuko dituzten pertsonendako jarraibi-

deen eskuliburuak onartu du Nafarroako Gobernuak. Jarraibide horiek udalek apirilaren 29tik maiatzaren 3ra bitartean egingen duten zozketatik etorriko dira. Eskuliburuak gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak ditu.



Konponketa premia beharra duen zubia. ARTXIBOA

Bi zubirekin bueltaka dabilta urritzolarrak

Larraun gainekoak konponketa premia du. Erroztik Urritzolarako errepideko zubia bikoiztea eskatzen dute

URRITZOLA

Urritzolatik Izurdiagara joateko Arakil eta Larraun ibaien gaineko zubiak pasa behar dira. Aurrenekoa konpondu zuen Urritzolarako Kontzejuak. Atzena, falta da. Lanek aurrekontu handiegia dute halako kontzeju txikiarendako. Baina zoria aldeko du, izan ere, Sakanako bizikleta ibilbidea bide horretatik pasako da eta, ondorioz, proiektu horren barruan zubian konponketa batzuk egingen dituztela jakinarazi du Oihana Olaberria Jaka Arakilgo alkateak. "Segurtasunagatik konponketa horiek beharrezkoak dira. Gutxieneko batzuk konpondu behar dira. Guztia bada, hobe, jakina", gaineratu du. "Ez dakit zorua bakarrik konponduko duten, edo petrilak eta gainontzeko guztia. Bestela, falta dena guk konponduko genuke", ziurtatu du Urritzolarako Kontzejuko buru Fermin Ma-

riñelarena Iraizozek. Bidean egiten diren lanen arabera, kontzejuak Nafarroako Gobernuaren erabilera askeko 2.221,49 euroak zubira edo beste behar batzuetara bideratuko lituzke. Alkateak proiektuaren egileekin harremanetan jartzeko proposatu die.

Buruhaustea sortzen dien beste zubi bat Errotzen dagoen Arakil gainekoa da, hiru metroko zabalera besterik ez baitu, eta autobusak, traktore handiak, kamioiak eta beste ezin dira pasa. "Trafiko guztiak dermioko bideetik pasa behar du halakoetan, eta bidea hondatu egiten da". Gogorarazi du kale bat egin eta bi etxe eraikitzen hasiko direla aurten eta "eraikuntzako kamioi guztiak dermiotik etorri beharko dute". Zubia zabaltzeko parean beste bat egitea eskatu du kontzejuak, "Egillorren bezala". Olaberriak azaldu duenez, "gobernuak esan digu dirurik ez dagoela".

Atez ate.
Egunero herriz herri Amayako banatzaileak zure etxera gerturatzen dira produktu freskoak emateko, egin berriak. Goza ditzazun, bere zapore eta testura bereziarekin.

amayaokindegia.eus



Landaketan parte hartu zuten ziordiarrek. UDALA

Ziordiarrek despeditu dituzte basoberritze lanak

Bertako haritzari lehentasuna emateko haritz amerikarrak moztu dituzte 6,2 hektareatan

ZIORDIA

Altzania magalean dagoen basoan itur bedeinkatua edo batueko dago. Handik Ziordira joateko bidearen ertzean, Telegrafos parajearen, zeuden haritz amerikarrak guztiak moztu ditu udalak. 2020-2021eko baso aprobetxamenduen udal planean jasota zegoen mozketa izan da. Moztutako zuhaitzen ordez bertako 7.000 kimu landatu dituzte, haritz kandudunak (*Quercus robur*) eta kandugabeak (*Quercus petraea*). Horietaz aparte, 250 kimu lizar, astigar, gereziondo eta mikorritzatutako zenbait gaztainondo ere landatu

zituzten. Baso berritze lanak ziordiarrek despeditu zituzten domekan. Haien ardura izan zen azken 50 haritz kimuak landatzea.

Lanak 50.000 euro inguruko aurrekontua izan dute. Basoberritzea egiteko Ziordiko Udalak foru administrazioaren 29.000 euro inguruko dirulaguntza izan du. Aurrekontua osatzeko 14.000 euro Rural Kutzaren gizarte ekintzako elkarlan hitzarmenaren bidez lortu ditu udalak. Inguru horretan zorua hobetu eta babesteko eta biodibertsitatea handitzeko eta CO² isuriak konpentsatzeko modua izan da.



Urbanizazio lanak Iturmendin

Estafeta kalean lanean ari dira azken hiru astetan. Grupo Gaceo enpresakoak eskolaren pareko kale zatia eta eskolaren mendebaldea urbanizatzeko lanak egiten ari dira. Imanol Arbizu Perpiña alkateak azaldu duenez, lanek bi hilabete iraunen dute. Lanak despeditu ondoren ezer eraikitzeko aurreikuspenik ez dago oraingoz.

Osasunbideak esan du pediatria bat etorriko dela

Asteko lanaldia hiru egunetan eginen du eta osasun eskualdeak beste bi egunetan pediatriarik ez du izanen. Bajengatik eta oporregatik, Sakanako Osasunaren Aldeko Plataformak aurreikusi du mediku faltaren egoerak okerrera eginen duela

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko Osasun Kontseiluaren bileran parte hartu zuen Nafarroa Iparraldeko Lehen Mailako Arretako eta Asistentzia Jarraitutasuneko zuzendariorde Susana Miranda Alkotzek asteazkenean. Mirandak jakinarazi zuenez, apirilaren 4an, asteartearekin, pediatria bat lanean hasiko da Altsasuko osasun eskualdean. Zehaztu zuenez, pediatriak asteke lanaldi osoa astelehenetik asteazkenean eginen du. Beraz, ostegun eta ostiraletan ez da pediatria zerbitzurik egonen. Dagoeneko langileak kontratua sinatu omen du. Bilkuran izan ziren hiru udaletako ordezkariak, osasun etxeko langileak, pediatria zerbitzua eskatzen duten amek eta Sakanako Osasunaren Aldeko Plataformako kideek jakin zuten ere etorriko den pediatria ez dela euskalduna.

Osasun eskualdeari dagozkion pediatria eta erdi plazak betetzeko eskatuz, otsailaren 24az geroztik, ostiralero, kontzentrazioak egiten ari dira guraso talde batek deituta. Bilkurak sustatzen dituen taldeko ama batzuk asteazkeneko bileran izan ziren eta mesfidati atera ziren. Izan ere, antzeko baldintzetan pediatria bat martxoaren 13an lanean hasiko zela iragarri baitzen. Baina halakorik ez zen gertatu. Gainera, pediatria bakarra etortzea konponbide eskasa dela uste dute. Osasun eskualdeak pediatria gabe hiru hilabete pasa daroma.

Sakanako Osasunaren Aldeko Plataformako ordezkariak ziurtatu zuten, "pediatria falta haurren eta, bereziki, jaio berrien osasunerako oinarritzko eskubidearen urraketa da. Bizitzako lehen asteetan egiten diren azterketak funtsezkoak dira patologia posibleen detekzio goiztiarrerako, batzuetan gaitzak antzeman, prebenitu eta tratatzeko



Bilkuraren bukaeran albisteen berri ematen dute. Gaur 18:00etan da hitzordua.

OSASUNBIDEARI ESKATU DIOTE PROFESIONALEN ERROTazioAREKIN BUKATZEKO

aukera ematen dutelako. Horiek ez egiteak, zenbait kasutan, bizitza arriskuan jartzea edo bizi guztirako gaitz bat izatea ekar dezake". Horretaz aparte, Iruñera pediatriarengana joateak gurasoie eta umei eragiten dien guztia ere salatu zuten Sakanako Osasunaren Aldeko Plataformako kideek.

Idatzia

Osasun Kontseiluan Sakanako Osasunaren Aldeko Plataformako aurkeztutako idatzia Nafarroako Gobernuari eta Osasunbideari bidaltzea onartu zuten. Hartan, pediatriako plaza eta erdi betetzeko eskatzen da bate-tik. Bestetik, sei medikuen plazak betetzeko exijitzen da. Izan ere, egunaren arabera 5 edo 6 sendagile izaten dira osasun eskualdean. Gaur egun bi mediku plaza beteta daude eta gainontzeko

lauak aldiari behingo medikuek betetzen dituzte. Mirandak jakinarazi zuenez, barneko mediku egoiliar bat bere prestakuntza bukatu eta garilean hasiko da osasun eskualdean lanean. Sakanako Osasunaren Aldeko Plataformako kideen iritziz, "urteak dira profesionalen plazak betetzen ez direla. Horrek zaildu edo ezinezko bihurtzen du osasunerako eskubidea. Gainera, medikuen dako eta erizainendako lan gainkarga dakar; erizainek beste lan batzuk ere egin behar izaten dituzte". Plataformakoak kexu dira "profesionalen etengabeko errotazioak lehen arretaren prekarizazioan sakontzen duelako, horrek profesionalaren eta gaxoaren arteko erlazioa moztu egiten duelako". Horregatik, errotazio horrekin bukatzea exijitu zuten.

Plataformako kideek aurrean dugun egoerarekin ere kezkatuta gaude. "Mediku batek amatasun baja hartuko du. Luzeak dira halako bajak. Eta berehala oporrrak heldu dira. Profesionalen bajak eta oporraldiak ez badira ordezkoez betetzen, hemendik aurrera osasun eskualdearen egoerak okerrera eginen du".



Dagoeneko ez dago Irurtzun zeharkatu beharrik.

Irurtzuingo saihebidia zabalik dago

Nafarroako Gobernuak pasa den astean zabaldu zuen 300 metro luzeko errepidea. Lanek 1.124.594,98 euroko aurrekontua izan dute. Kamioi gidari batzuek, oraindik ere, lehengo joera dute eta herri erditik pasatzen dira, nahiz eta gutxiago diren

IRURTZUN

Saihebidian barna Akaborro industrialderantz paseatzen zihuan Jon Cordon asteartean. Egindako lana "oso ongi" dagoela esan zuen, "herritik ez dira hainbeste auto pasatzen, zeren oraindik pasatzen dira batzuk", esan du herrigunera joaten zen auto bat seinalatuz. Etxea herri erdian du, "eta asko nabaritzen dut". Hala ere, Cordonek gogorarazi zuen oraindik Izurdiagatik autobiarekin lotura egiteko dagoela, "ordu bai, ongi".

Lizarra kalean behera, biloba silletan zeramala, Mari Jose Azkonak esan zuen saihebidia zabaltzea berarendako "primerako" berria dela, "Larraundik

etortzen naiz. Saihebidia hartu eta zuzen sartzen naiz alabaren etxera. Aldea nabari da herri barruan buelta ematea edo saihebidetik joatea. Niretako askoz hobe da". Gaineratu zuenez, bilobarekin ere handik paseatzen du, "ibilbidea pixka bat luzatu da. Gainera, toki ona da".

Behin saihebidearen lehen fasea eginda, Aitor Carrera Larraza alkateak azaldu duenez, udalak emanen duen hurrengo pausoa zehaztua du: Nafarroako Gobernuari NA-7010 errepideko, hau da, Lizarra kaleko zeharbidearen jabetza eskatzea. Zeharbidetik 0,51 km-ko luzera du. Oraindik ere industrialdeko kamioiak pasatzen direla ikusi-

ta, etorkizunean pasa hori mugatzeko asmoa ere badu udalak. Baina horiek eta hartu daitezkeen bestelako neurriak mugikortasun planaren bidez zehaztuko dituzte. Udalak ahalik eta irurtzundar gehien iritziak jasotzeko parte hartze prozesua egingen du.

Saihebidearen bigarren zatia Izurdiagatik autopistarako lotunea da. Nafarroako Gobernuak lanak udaberrian emanen ditu. Izurdiagako saihebidian biribilgunea egin eta handik abiatuko da autopistarako sarbide berria, 815 metroko luzera duen errepidea. Lanek 1,1 milioi euroko aurrekontua dute eta haiek egiteko lau hilabete beharko dituzte langileek.

Autokontsumorako baratzak erabiltzeko aukera gertuago

Erabileraren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartuta, eskaerak apirilaren 19ra arte egin daitezke

IRURTZUN

Igerileku azpian duen lur sail batean, Irurtzuingo Udalak herritarren auto kontsumorako baratza ekologikoak sortu nahi ditu. Haien bidez, udalak bost helburu lortu nahi ditu. Batetik, aisialdia modu praktiko eta aberasgarrian erabiltzea. Aldi berean, nekazaritza bulkatzea. Horrekin batera, nekazaritza tradizionalaren zenbait usadio eta ohitura berreskuratu nahi ditu. Bestetik, udalaren asmoa da herritarren artean ingurumenarekiko ezagutza eta errespetua sustatzea. Azkenik, harreman pertsonalak sustatzea, gizarte sare bat sortzea nahi luke.

Berrozko ekobaratzak 31 izanen dira, bakoitza 100 m²-ko azalera izanen duena, itxitura eta zenbaki bidez identifikatuko dira. Udalak partzela bakoitzean ur hartunea jarriko du, baita baratzeko tresnak gordetzeko kaxoi bana ere. Arautegian udalak jaso duenez, baratza ekologikoetan ezin izanen da negutegirik jarri. Bertan ezin izanen duten animaliarik sartu eta debekatuta egonen da barbakoarrik jartzea.

Udalaren asmoa da eskatzaileen arteko zozketa egitea eta hala baratzeen %80 banatzea, gainontzeko %20 irizpide sozialak kontuan izanik banatuko ditu. Baratza eskuratzen duenak, bi urtez landu ahalko du hura, eta beste hiru urtez luza dezake. Eskaera berririk ez balego, berritzen joanen litzateke lurraren erabilera baimenak. Baratza

eskuratzen duen bakoitzak udalari urtero 50 euro ordaindu beharko dizkio.

Kudeaketa eta parte hartzea

Irurtzuingo Udalak Berrozko baratza ekologikoetarako ondutako araudian jasotzen denez, haiek ureztatzeko 25.000 litroko bi biltegitan hartuko da igerilekutik jasotako ura, baratzeetan bererabiltzeko. Bestetik, lurra ongarrizteko herrietako auzo-konpostagailuetan sortutako luarra edo konposta erabiliko da ekobaratzetan. Bestetik, Arakilen tokiko baratza ekologikoetan bulkada eman nahiko liokete. Horregatik, bertako hazien erabilera sustatuko dute erabiltzaileen artean, baina inor ez da haiek erabiltzera behartuta egonen.

Baratzak hartzen dituzten guztien artean batzorde bat sortzea nahi luke udalak. Horrekin batera, 31 onuradunei zuzendutako bi prestakuntza saio ematea aurreikusitako urtero, izan ere, baratza horien bidez agroekologia sustatu nahi baita. Horretarako, besteak beste, uraren erabilera eraginkorrean eta lurraren lanketa iraunkorrean trebatuko dituzte erabiltzaileak.

Baratza erabiltzaileen batzordea irekia izanen da, eta dinamika independenteak landuko dituela aurreikusitako da. Proposamenak bulkatzeaz ere arduratuko da eta batzordearen ardura izanen da ere udalarekin harreman zuzena izatea.

Hirugarren udala UEMAn

Arbizu eta Etxarri Aranatzekin batera, Arruazuko Udala Udallerri Euskaldunen Mankomunitateko kide da larunbatuz geroztik. Gorka Ovejero Ganboak "euskara lehenesteko, herritarren aurrean eredu garri agertzeko eta erabilera areagotzeko ilusioa eta lanerako gogoa" agertu zuen. UEMAn 101 udal daude; guztietan euskararen ezagutza %70etik gorakoa da.



PORTUKO

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988

Amiantoa dagoen tokien zentsua egiteko eskaera

Udalek Nafarroako Gobernuarekin batera urte akaberarako egitea eskatu da onartutako mozioan. Udal eraikinetatik amiantoa kentzeko plana 2028rako indarrean izatea eta erkidegotik amiantoa kentzeko plana 2032rako despeditzea eskatu dute

ARBIZU / ALTSASU

Arbizuko eta Altsasuko udalek Adavanek, Nafarroako Amiantoaren Biktimen Laguntzarako eta Defentsarako Elkartek, aurkeztutako mozioa onartu dute. Udalerrietatik amiantoa kentzeko, lehenik eta behin, haiek dauden tokien zentsua urte akaberarako eginga izatea eskatu dute. Horretan Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean ariko lirateke. Zentsua egin ondoren, hura eraikin publikoetatik kentzeko udalek eta Nafarroako Gobernuak plana egitea eskatu du mozioak, baita lanak 2028a baino lehen hastea ere. Nafarroako Gobernuak amiantoa kentzeko plana onartua du eta Adavanek eskatu du hura gauzatzeko aurten 24 milioi euro bideratzea.

Onartutako mozioan, bestalde, Adavanek eskualdeko osasun zerbitzu publikoen elkarlana eskatu du. Osasun profesionalen bidez jendartea informatu eta sentsibilizatu nahi dute amian-



Gaizki kudeatutako uralita puskak.

toa modu ziur batean kendu behar dela. Aldi berean, Osasunbideari eskatu diote amiantoaren eraginez sortutako gaitzak azkar antzemateko informazioa zabaltea eta sentsibilizazio lana egitea. Azkenik, Adavanek udalei

eskatu die obretarako lizentziak ematerakoan lan arrisku planak bete daitezela, horretarako administrazio publikoek elkarlanean aritzea eskatu du.

Europatik aginduta

Europar Batasunak amiantoaren erabilera debekatu zuen 2001ean. Europar Batasuneko herrialdeak behartuta daude amiantoa kentzera 2032 urterako. Nafarroako lantegi, ikastetxe, eraikin publiko eta abarretako teilatueta (uralitan) sei milioi karratu daude, eta 526 km luzera kanalizazioetan (ur sareak, ur beltzak, ureztatzeko sareak, beherako hodiak...).

Aurreko Nafarroako Gobernuak amiantoa kentzeko plan zuzentzailea egin zuen. Europako agindua betetzeko gutxienez 240 milioi euro beharko zirela kalkulatu zuen. Estatuan aitzindaria izan zen plana baina legegintzaldi honetan kaxoi batean sartuta izan dute. Adavaneko kideen kezka da denbora aurrera doala eta planaren ezarpena atzeratuz gero administrazioek ez dutela betarik izanen agindutakoa betetzeko. Eta horrek amiantorekin kontaktuan egiteko aukera, eta, ondorioz, gaitzoko aukera handituko duela.

Nafarroako Gobernuak dirurik ez zegoela argudiatuta, amiantodun materialak identifikatu eta kudeatzen ikasteko 65.000 euro bideratu zituen 2021ean, ezer gehiago. Adavaneko kideek planari bulkada ematea eskatzeko Jose Mari Aierdi Fernandez de Barrena presidente ordearekin elkartu ziren abenduan. Hark aipatu zien Hitzarmen Ekonomikoagatik estatuak 137 milioi bueltatu zizkiola Nafarroari. Aierdik jakinarazi zien gobernuari proposatuko ziola diru horren zati bat amiantoa kentzeko planera bideratzea. Adavanekoek uste dute aurten 24 milioi euro beharko liratekeela.

"Pertsonak ezagutuz aurreiritzi asko kenduko genituzke"

AITOR LARRAZA CARRERA ETA BEGOÑA ZESTAU BARAIBAR
IRURTZUNGO ALKATEA ETA SAKANAKO MANKOMUNITATEKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN TEKNIKARIA
Arte hitzaren bueltan zikloa antolatu dute Irurtzunen. Kulturen eta pertsonen arteko topaketa sustatu dute kulturen arteko zikloarekin

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Herriko kulturen arteko diagnostia eginda, irurtzundarren artean kulturen arteko topaketak aurrera egiteko "beharra eta nahia" zegoen.

Aurkezpenean arte hitzak aparteko protagonismoa hartu du. Arte hitz horrekin zeri egin nahi diozuen erreferentzia?

Begoña. Zentzu bikoitza dauka. Kulturen artean bizi diren pertsonen hartu-emana bultzatu nahi du, kulturartekotasunari keinu eginez. Eta ziklo honetan bereziki egun bat eskainiko zaio-lako kulturen artearen adierazpenari bere osotasunean.

Zertarako artea?

B. Jatorri anitzeko pertsonen arteko hartu-emana bulkatzeko, elkarren artea ezagutzeko eta elkarbizitza baterako pausoak pixkanaka emateko, norberak berea duena eskainiz.

Arte hori nola zabalduko duzue irurtzundarren artean?

A. Ideia da sare desberdinak irekitzea. Hau elikagaietatik haratago doa. Bizikidetzari sustrietatik hartu nahi izan da eta lan polita egin da. Gehienbat, Anitzartean zerbitzua zoriondu egindako lanagatik.

Bizikidetzaren plan bat garatzen ari zarete Irurtzunen.

A. Urte pare bat daramatzagu lanketa txukun bat egiten. Horren haritik heldu da ziklo hau. Hurrengo pausoa da, azalean gelditzen ez dena. Nahi dena da jende

dezentek lan hori partekatu dezala. Ez dadila ikusi bakarrik munduko arrotzetan edo beste garai jakinetan. Folkloretik aparte, parte hartu eta elkar ezagutzea. Bakoitzak pertsonak ezagutzea, hori lantzea. Horrekin ere aurreiritzi asko kenduko genituzkeelako. Zikloaren ideia hori da. **Horretarako artea bitarteko.**

B. Bai. Artea modu desberdinetan, hainbat egunetan.

Nola aletzen da?

Orain arte Irurtzunen munduko arrotzak egiten ziren. Baina gastronomia edo elikagaietatik haratago zihoan beste zerbait egiteko premia zegoela ikusten genuen. Anitzartean zerbitzuak kulturartekotasuna eta hainbat gai lantzeko ideia pila jasotzen ditu. Gastronomiatik harago joan behar genuela ikusita, eta proposamen horiei erantzuna eman nahian sortu da hiru eguneko kulturen arteko zikloa, egun bakoitzak ildo bat izanen du.

Noiz da lehen eguna?

Larunbatean, 10:00etatik aurrera. Jasotako proposamenen artean daude herriko zerbitzu batzuk ezagutzeko nahia. Ezagutzen dira non dauden, baina ez hainbeste haien funtzionamendua. 10:00etan plazara etortzen denak bi zerbitzu ezagutzeko aukera izanen du: kultur etxean eta Pikuxar euskal txokoa. 12:00etan plazan (euria egiten badu, Barazkigunean) hizkuntza aniztasuna izanen da ildoak. Mank-eko

DUELA 25 URTE...



Domingo Lumbier proiektua

Altsasuko Udala Domingo Lumbier eskola zaharrak hartzen zuten tokian (egungo kultur etxea) zer egin zirriborrazten hasia zen. Gehienez lau altuera izanen lituzkeen eta babes ofizialeko 75 etxebizitza eta lurpeko aparkalekua eraikitzea aurreikusita zen. Eraikinaren beheko parteko 1.200 m²-ak saltokiendako bideratzea zen proposamena, baita udaletxea 400 m² handitzea ere. Altsasuko dendariak udalaren egitasmoaren kontra azaldu ziren.

Euskara Zerbitzuak 11 hizkuntza, 11 kolore ekimena landuko du. Izaskun Mugikak ipuinak konstatuko ditu euskaraz. Ipuinak kitxuerazentzuteko aukera izanen da ere. Ondoren, tailerren bidez, hitz edo esaldiak hainbat hizkuntzatan jasotzeko aukera izanen da. Arabiera, bulgariera, kitxue-
ra, errumaniera, erromania, amazigera, wolofera... Halako grafiak izanen dira presente. Egun horretarako munduko esaeren liburu erraldoia osatu dugu. Bertan jaso dira Irurtzun eta Arakilgo bizilagunek haien sorterrietan erabiltzen dituzten esaerak. Batzuk haien ama hizkuntzetan daude, beste batzuk ez. Larunbatean plazaratzen denak bere esatera liburuan sartzeko aukera izanen du. Beste txoko batean, azkenik, munduko sehaska kanten txokoa izanen da. Hori da oraingoz itxita dagoena.

Kontu gehiago badaude?

B. Bai, zikloak beste bi data ditu itxita: maiatzaren 20a eta garagarriaren 10a. Baina, tarteko, elkarlanari esker, maiatzaren 11n, ostegunarekin Pikuxarrera Amets Arzallusetorriko da *Miñan* liburua aurkeztera.

Maiatzaren 20an, zer?

B. Arte hitza horren barruan, margogintza, gena, joskintza ziu-
rrenik eta dantza tailerra. Oraindik gauzak gehitu daitezke maiatza bitartean. Gazteekin zerbait itxekotan gara. Dena den, datak hurbildu ahala berri zehatzagoa eskainiko dugu.



Zikloaren antolakuntzan parte hartu duten erakundeetako ordezkariak eta irurtzundarrak.

Munduko Arrozek ez dute hutsik eginen, ezta?

B. Aurtengoa 12. edizioa izanen da, garagarriaren 10ean izanen da, beti bezala 10:00etatik aurrera. Sukaldean aritu nahi duen edozein gonbidatuta dago. Eta proposamenak egin nahi dituztenek Anitzartean zerbitzura jo besterik ez dute. Egun horrek sinbologia bat du: arroza mundu guztian jan daitekeen elikagaia denez, mundutar guztiak berdin egiten gaitu. Baina sorterria, ohitura, kultura eta abarren arabera prestaketa desberdina da. Nolabait, berdinak bezain des-

berdinak gairela adierazten du. Ez da zergatik arroza prestatu, baten batek egun horretan beste jakiren bat prestatu nahi badu, ongi etorria izanen da. Asmoa da, beti bezala, Irurtzungo aniztasuna plazaratzea eta goiz batez aldamenak pixka bat hurbiltzea, egun eder bat pasatzea eta goiza aho zapore onarekin bukatzea.

Udalarendako zein garrantzia du hainbat kulturatako irurtzundarren artean topaguneak sortzeak?

A. Handia, ikusi da. Irurtzun bezalako herri anitz batek berebizikoa du bizikidetza eta horrelako gaiak jorratzea. Hemen bi

migrazio izan dira, XX. mendeko 60ko hamarkadako eta oraingoa. Bere garaian jakin izan zen bizikidetza hori ezartzen eta orain jakin behar dugu, hemendik denbora batera hori aurrera eramaten.

Bizikidetza plan horren barruan ildo garrantzitsu bat Hezkuntza da.

A. Bai, lantzen ari gara. Anitzartean zerbitzua eskolarekin lan dezente egiten ari da uneoro. Gaztetxokoa, nahiko garrantzitsua dena, 12 eta 15 urte arteko gaztetxoekin lantzen ari da. Eta taldekoen lana. Hori aurrera eramatea zutabe oso garrantzitsua da.

Kultur Kontseilua dagoen bezala, bizikidetza planak bere batzordea du?

A. Lantalde bat dago. Diagnostika-
ren harira neurri batzuk planifikatu ziren. Lantalde hori diagnostik ateratako ekimenak, edo egin beharko litzatekeen jarraipena egiten aritzen da. Bakarren batek interesa badu parte har dezake. Ahalik eta anitzen eta ahalik eta esparru gehien hartzen baditu lantalde horrek, askoz hobe.

Aipatu dituzue sehaska kanta eta ipuina, entzumena. Idazmenarekin ikusmena eta ukipena. Jatekoak prestatzearekin usaimena eta das- tamena. Kulturartekotasuna zentzuen bidez sartuko duzue Irurtzunen?

B. (Barrez) Ba, bai. Ez zen hori hasierako planteamendua, baina, hala da. Zentzu guztia dauka.

Zikloa prestatzen zein dabil?

A. Hemen dugu protagonista. Anitzartean Zerbitzua eta Begoña sekulako lanketa egiten ari dira. Laguntza du, baina bera da zutabe garrantzitsuena.

B. Eskerrik asko, Aitor. Hau ez da posible hainbat irurtzundar, eta zerbitzuaren laguntza gabe. Ezinen litzateke antolatuta. Hori ere bada helburuetako bat. Zeren, horrek hurbiltzen gaitu. Eta hor laguntzen du elkarrekiko ditugun edo izan ditzakegun estereotipoak eta aurreiritziak hausten. Aitorrek esan bezala, elkarbizitzarako lanketa sakona egiten ari da duela urte pare bat eta parte hartzea eta hurbiltzea agerian gelditzen ari da.



Gobernu ausarta
merezi dugu

Prest gaude!

**UXUE
PRESIDENTA**



HARA ZER DIEN

Euskara irakatsi ala hiztun aktiboak sortu?**KIKE AMONARRIZ GORRIA**SOZIOLINGUISTA ETA EUSKALTZALEEN
TOPAGUNENKO PRESIDENTEA

Maiatzaren 14an bi hitzaldi eman nituen Donostiako irakasleen unibertsitate eskolan. Hasi orduko, galdera hau egin nien hurbildu ziren 150 bat ikasleei: hona iritsi aurretik ikasi duzuen institutu, ikastetxe edo ikastolan, zein izan da praktikan, eta ez teorian, jaso duzuen irakaskuntzaren helburua? Zuek euskara ikastea, ala euskal hiztun aktibo bilakatzea? Hiru laurdenek inguru lehen aukeraren alde jaso zuten besoa, eta laurden eskasak aukeratu zuen bigarren aukera. Ikasle gehienak gipuzkoarrak ziren, askotariko jatorri eta eremu soziolinguistikotakoak, eta ia denak D eredukoak. Baina gehiengoaren sentipena argia zen: jaso duten heziketa euskara eta euskaraz irakastera mugatu da, ez ditu euskaldun aktibo izatera bultzatu.

Handik hiru egunera, Donostiako IRALEn eman nuen beste hitzaldi bat Gipuzkoa osoko 80 bat irakasleren aurrean (ia denak D eredukoak). Haiei, galdera hau egin nien: zein da, praktikan, zuen inguruko ikastetxe gehienen helburua? Ikasleek euskara ikastea, ala ikasleak hiztun aktibo bilakatzea? Irakasleen erantzunetan aldeak askoz ere nabarmenagoak izan ziren:

bost bat bigarren aukeraren alde eta beste guztiak lehenaren alde. Hau da, ia guztien pertzepzioa da, Gipuzkoako ikastetxe gehienak euskara (eta euskaraz) erakustera mugatzen direla, baina erabileraren aldeko jarrera proaktiborik gabe.

Hilabete hauetan, hezkuntza sistema aztergai izan duten hainbat bilera eta elkarrizketetan parte hartzea egokitu zait, eta urteotan irakaskuntzatik urrutu xamar ibili naizenez, ezustean harrapatu naute era honetako esaldiek: “gaur egun ia inor ez da ausartzen ikasleei euskaraz egiteko eskatzera”. Are gehiago, portaera hori talibankeriatzat hartu duen euskarazko irakasleren bat ere izan dut aurrean.

Errealitate gordin honek harritu eta larritu egin nau, euskararen sustapenari eta normalizazioaren aldeko diskurtsoei dagokienez, atzera egin dugula iruditatu zaidalako. Euskara hizkuntza gutxitu bat da eta, munduko beste hizkuntza gutxitu guztiek bezala, nozitzen duen egoera minorizatua gaudituko badu, ezinbesteko ditu hizkuntzaren ikasketa egokia eta ezagutzaren unibertsalizazioa bermatuko duten ikastereduak eta beronen erabilera nagusi izango den eremu geografiko-funtzionalak, hezkuntza-eremua barne.

Egoera honetan, hezkuntza-sistema ezin liteke euskara



erakustera mugatu. Ezjakintasunez, edo intenzionalitate osoz, neoliberalismo linguistikoa praktikatzeko, hau da, gaztelania/frantsesa, ingelesa edo euskara modu berean tratatzea eta hezkuntza-komunitate gisa euskararen erabilerarekiko jarrera neutroa hartzea, praktikan, hizkuntza hegemonikoen alde egitea da; jolaslekuen erabilerari dagokionez, neskek espazioak irabazteko politika sustatzaileak ez aplikatzea, patioak mutilen esku uztea den ber. Euskararen erabileraren aldeko sustapen politikak egikaritzen ez badira, inertziak eta presio linguistikoez, gaztelania, frantsesa edo ingelesa erabiltzera eramango dituzte haurrak eta gazteak.

Besterik da, egin beharreko interbentzioak nolakoak izan behar duten. Nire ustez, euskararen erabileraren sustapenak bat egin behar du gela, ikastetxe eta herrietako aniztasunarekiko errespetuarekin, norberak nahi duen hizkuntzan hitz egiteko duen eskubidearekin eta oinarrizko balio demokratikoekin. Baina, helburua izan behar litzateke Euskal Herriko hezkuntza-sisteman euskaraz bizitzea eta ikasleen arteko hizkuntza komuna euskara izatea.

Bide hori burutzeko, babes legala, eta ondo definitutako metodologiak izateaz gain, ahalik eta babes sozio-politikorik zabalena izango duten estrategia, praktika eta diskurtso sendoak behar ditugu, ikasleak, familiak eta herritarrek motibatu eta aktibatzeke, eta euskararen sustapena inposizioarekin edo jarrera baztertzailerekin parekatu nahi duten diskurtsoei aurre egiteko. Herritarrei ondo azaldu behar zaie, ikastetxeetan bertan, baina baita euskalgintzatik eta erakundeetatik, euskararen hiztun aktiboak sortzearen ezinbestekotasuna hizkuntzaren biziberritzea, eta elkarbizitza eta integrazio soziala sustatzeko.

Hiztun aktiboak sortzeak, hizkuntza irakaste hutsak ez bezala, hezkuntza-komunitatearen eta haren ingurunearen inplikazioa eskatzen du (udalak, euskalgintza, bestelako eragileak...), eta familiekiko harremana, irakasle zein ikasleen formazio soziolinguistikoa, edo ikuspegi gramatikala gauditua eta ahozkotatuzko oinarrizko komunikazioan oinarrituriko metodologia aktiboak erabiltzea (euskara irakasteko erabiltzen diren metodologiez Euskarabenturako partaideek duten ikuspegi ezkorraz idatzi dudana artikulua eta

erreportajea aurki ditzakezue Hiek Hasiren azken zenbakian eta webean). Eskolak bakarrik ezin du helburu hori lortu; eragile guztien arteko konpromisoa eta koordinazioa behar dira. Eta ilusio eta motibazio kolektiboa landu eta elikatzea.

Hizkuntza gutxituen aldeko hautu kontzientea eta aktibazio soziala ezinbesteko elementuak izango dira hizkuntzen biziberritze-prozesuetan. Konparazio batera, hilabete hauetan, hainbat albiste irakurri dugu Islandiako gobernu islandieraren alde hartzen ari den neurrien inguruan, guztiz kezkatuta baitago, haurrek eta gazteek gero eta gehiago jotzen dutelako ingelesera. Eta anekdota gisa aipatuko dut, Irakasle eskolako ikasleei galdetuta ea zenbatek ezagutzen zituen gaur egun frantsesez arrakasta duten bi musika talde, inork ez zuela besorik jaso. Islandiera arriskuan ikusten bada, eta munduko hizkuntza indartsuenetako bat den frantsesaren musika ez bada gai Behobiako mugatik hegoalderantz metro bat ere irabazteko, garbi dago gure hezkuntza-sistema ezin daitekeela euskara irakastera mugatu eta ikasleak hiztun aktiboak izan daitezen ahalegindu behar dela. Hala bedi!

Gurekin harremanetan jartzeko

618 882 675

GUAIXE





Kale Nagusiaren ertzean jarri dute ekarpen etxola.

Hondakinendako ekarpen etxola tokiz aldatu dute

Hondakinak jasotzeko etxola Goialde kaletik Kale Nagusira aldatu dute

HIRIBERRI ARAKIL

Etxe baten eraikuntzak hondakinak jasotzeko etxolarendako kokapen berria bilatzera behartu zituen Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzua eta Hiriberri Arakilgo Kontzejua. Momentuz, besterik ezean, Kale Nagusian dagoen futbol zelaiaren hegoaldean jarri dute. Otsailaren hasieratik han ari da zerbitzua ematen.

Bestetik, kontzejua gobernuak Toki Azpiegitura Planaren ebazpenaren zain dago. Izan ere, Arakil ibai gaineko zubia konponitzeko proiektua aurkeztu dute.

“Guretako lehentasunezko lana da, zubia erortzeko arriskuan dagoelako, eta, besteak beste, baso aprobetxamendu ateratzeko handik pasa behar delako”, azaldu du Javier Arrieta Aniz kontzeju buruak. Zubia berritzeak 250.000 euro inguruko aurrekontua du. “Jasotzen dugun dirulaguntzaren arabera herrian gauza batzuk egiteko aukera izanen dugu edo ez. Zubiarena jakin arte, erabilera askeko 4.317,85 euroak ez ditugu ezertara bideratu. Zubirako beharko ote ditugun ez dakigulako oraindik”, esan du kontzeju buruak.



UTZITAKOA

Mantentze lanak Bi Ahizpen

Bi Ahizpen Larraun ibaiaren gainean oinezkoendako zubia dago. Denboraren joanak eta izandako uholdeek, ordea, arrastoa utzi du azpiegituran eta egoera egokian mantentzeko lanak egin dituzte. Lanek 1.700 euro (BEZ kanpo) aurrekontua izan dute eta Etxeberriko Kontzejuaren eta Irurtzango Udalaren arteko elkarrekikoak edo fazeriak ordainduko ditu lanak.

Udalarendako betaurreko moreak prestatzen

Udalak Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Altsasuko Udalaren ordenantzaren proposamena landu du. Udal jardueran genero berdintasuna txertatuko du. Proposamenak eta ekarpenak egiteko epea zabalik dago

ALTSASU

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Altsasuko Udalaren ordenantzaren proposamena prest dago. Berdintasun teknikari Aizaga Zeberio Petriati teknikariak azaldu duenez, "ordenantza horrekin, orain arte egindako lana finkatu eta udal jardueraren erregulazioan aurrera egin nahi da, arlo eta prozedura guztietan aurrerapausoak emateko, eta lanaren kalitate handiagoa lortzeko". Gaineratu duenez, "azken helburua da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzea, emakumeen diskriminazioa eta genero desberdintasunak sortzen eta erreproduzitzen dituzten oztopoak ezabatuz".

Araudi berria onartu baino lehen, Altsasuko Udalak kontsulta publikorako epea zabaldu du, altsasuarrek ekarpenak egiteko aukera izan dezaten. Araudia www.altsasu.eus webgunean kontsulta daiteke. Iritzia eman



Altsasuarrak Foru plazan maiatzeko artisau azokan. ARTXIBOA

edo iradokizunak eta oharrak egin nahi dituenak altsasu@altsasu.net e-posta helbidea erabil dezake. Epea apirilaren 11ko 14:00etan despedituko da.

Altsasuko Udalak gizonen eta emakumeen arteko ber-

dintasunerako II. Jarduera Plana du. Haren 11. neurria da aipatutako ordenantza egitea. Hori eginda, Altsasuko Udalak genero berdintasuna bulkatzeko bere ibilbide luzea luzatzen segitu nahi du.



MUSIKAZ
BLAI

Arkaitz
MINDEGIA
BALEZTENA

Musikaria / AURTITZ

Ezet
asmatu
zeintzuk diren
bere kantu
kuttunak
Piztu irratia!

Martxoak 31, ostirala,
10:30etatik aurrera

Beleixe irratian



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 31

IRURTZUN Jardunaldiak.

Ekonomi zirkularra. Enpresa
Iraunkortasunaren Giltzari
jardunaldiak.

Dinabiden.

08:45 Erregistro eta harrera, Odei
Arregi SGAKo industria
teknikaria.

09:00 Agurra, David Oroz Mank eta
SGAKo lehendakaria.

09:10 Hasiera eta Navarra Zirkular,
Mikel Irujo, Garapen
Ekonomiko eta
Enpresariekiko kontseilaria.

09:25 Navarra Zirkularren
Zerbitzuak, Javier Rodrigo,
Navarra Zirkular

09:35 Mahai ingurua, Sandra Elía,
Navarra zirkular; Plantako
zuzendaria, Alerito Loizate,
Harivensa; HSE zuzendaria,
José Miguel Villanueva,
Hydro; Komunikazio
arduraduna, Kerabi-Ekográs.

10:25 Itxiera instituzionala, Pedro
Latorre, Sakanako Enpresen
Elkartea.

10:30 Kafea/Tea.

IZURDIAGA Erakustaldia.

Artisautzaren Europako Egunak
programaren barruan Forjas Brun
tailerra irekita egonen da eta forja
erakustaldiak eta haurrendako
tailerrak egingen dituzte, doan.
Irulegiko Eskuak forjatuko dituzte ere.

10:30etik 13:00etara eta 16:30etik
19:00etara, Forjas Brun tailerrean.

ALTSASU Gazte agenda.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

**Bajo terapia
gaurkotasunezko
filmaren emanaldia**

Ostirala 31 19:00
Igandea 2 19:30

Sexgunea sexualitate aholkularitza
Itxaso Torregrosa sexologoarekin.
17:30-19:30 12 eta 16 urte
bitarteko gazteendako.
19:30-20:30 17 eta 30 urte
bitarteko gazteendako.

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota elkartearen pala partidak:
Mendiburu – Marroyo / Sasiain – Campos
Jimenez – Garmendia / Iriarte – Zia
Beltza – Jaka / Ayeso – Caballo
17:45ean, Euskalerriari frontoian.

ALTSASU Hitzaldia.

Erdiz Bizirik elkartearen aurkezpen
hitzaldia.
18:30ean, Iortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Ikuskizuna.

Amaraun, irauenez irau bertsu eta
dantza ikuskizuna.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Kontzentrazioa.

Altsasun pediatrik orain! Sakanako
Osasun Publikoaren Aldeko
plataformak eta guraso talde batek
deitutako elkarretaratzea.
18:00etan, udaletxearen aurrean.



UHARTE ZENTROA

**ALTSASU Uhartte Arte
Garaikideko Zentroko Uholdeak
programaren Materialak amatu
erakusketa.**

Apirilaren 16ra arte. Iortia kultur
guneko erakusketa aretoan.

**IRURTZUN Aixitako gaztelua:
Arakilgo zaindari 2011-2020
esku hartze arkeologikoen
inguruko erakusketa.**

Apirilaren 23ra arte. Pikuxar
tabernan.



ARTXIBOA

IRURTZUN Antzerkia.

Irurtzango antzerki tailerraren La
dama vuelve antzeztanaren
emanaldia.
19:00etan eta 21:00etan, kultur
etxean.

ALTSASU Kontzentrazioa.

Etzeraten Azken ostirala
elkarretaratzea.
19:30ean, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Kontzentrazioa.

Etzeraten Azken ostirala
elkarretaratzea.
20:00etan, San Martin Kalea 7
(Astraingo bidegurutzean).

ARBIZU Kontzentrazioa.

Etzeraten Azken ostirala
elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Kontzentrazioa.

Etzeraten Azken ostirala
elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

LAKUNTZA Kontzertua.

Penadas por la ley 30. urteurren
biraren, Zero eta Ultimatum taldeen
kontzertua.
21:00etan, kultur etxean.

LARUNBATA 1

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Bazkide Zoz keta

MARTXOKO SARIDUNAK

1. SARIA
Mikel Mazkiaran
Lopez de Goikoetxea (Lasarte Oria)

2. eta 3. SARIAK
Amaia Mundiñano Larraza (Antzuola)
Ekaitz Zumarraga Arizeta (Bakaiku)
Margari Zabala Ijurko (Etxarri Aranatz)

ZORION AGURRAK



Eneko Galarza
"Zorionak bihurri jatorroi!!
Iye 2 urte betetzietekin
laxaintzen zan zu
bizimodu alai hortan.
Muxu asko ta aungi ibili
zue egunien.
Zu famelikuek.




June Castro
Zorionkak June!! Ya 6 urte bete
ttuzu ta neskatxa pollipet einik
zaude. Aittu degu hortz bat atia
dakizula, iye xagutuxuek
ekartzen duzun opanibat!
Muxu asko ta segi beti bezein
alai. Zuu famelikuek.



Er^viti aluminio
PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioeserviti.es



Azkartasun handiko zerbitzua

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Gure Pilota elkartearen pala partidak. Natale – Anitz / Garaño – Gofñi Nerea – Olaitz / Iriarte – Legarra Julene – Izadi / June – Onditz
09:45ean, Euskalerrari frontoian.

IRURTZUN Kulturartekotasun zikloa. Nola idazten da KulturARTEkotasuna? Ze doinu dauka? Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak antolatutako Kulturartekotasun zikloaren barruan.

Foru plazan (eguraldi txararekin Barazkigunean).
10:00 Bisitak kultur etxera eta Pikuxar euskal txokora.

12:00 11 hizkuntza, 11 kolore: Munduko ipuinak zenbait hizkuntzetan, munduko esaerak, hizkuntzak eta grafiak. Lotarako kantak.

UHARTE ARAKIL Erronka.

Esklerosi Anizkoitza Nafarroaren Exoeskeleto proiektuaren aldeko erronka solidarioa. Kepa Gordo Aralarko santutegira bederatzi aldiz igoko da. Plazan (eguraldi txararekin kiroldegian).

10:00 Ekitaldi hasiera eta karpak. Atica FM.

11:00 Sakanako herri kirolariak. Jolasak haurren gunean.

12:00 Zumbatoia.

13:00 Pintxo solidarioak.

17:00 Cendea de Galar Eskolako eta Iskiza Sakanako gimnasia erritmikoko erakustaldia.

18:00 Kepa Gordoren iritsiera. Ekitaldiaren amaiera.

IZURDIAGA Erakustaldia.

Artisautzaren Europako Egunak programaren barruan Forjas Brun tailerra irekita egonen da eta forja erakustaldiak eta haurrentako tailerrak egingen dituzte, doan. Irulegiko Eskuak forjatuko dituzte ere.

10:30etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Forjas Brun tailerlean.

ETXARRI ARANATZ Agerraldia.

Erasorik ez! agerraldia.
13:00etan, plazan.

ALTSASU Gazte agenda.

Nazioarteko Gazte Astearen barruan Munduko sukaldaritzatza tailerra.

18:00etatik 21:30era, Intxostiapunta gazte gunean.

IRURTZUN Antzerkia.

Irurtzuno antzerki tailerraren *La dama vuelve* antzeulanaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Antzerkia.

A panadía konpainiaren *Las que limpian* antzeulanaren emanaldia. Espainiako Zentro Dramatik Nazionalaren koprodukzioa.
19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 2

IZURDIAGA Erakustaldia.

Artisautzaren Europako Egunak programaren barruan Forjas Brun tailerra irekita egonen da eta forja erakustaldiak eta haurrentako tailerrak egingen dituzte, doan. Irulegiko Eskuak forjatuko dituzte ere.

09:00etatik 13:00etara, Forjas Brun tailerlean.

ALTSASU Txirrindularitza.

65. Erramu Trofeoa. Junior mailako txirrindularitza txapelketa. 101 km. Altsasuko Kirol Elkarteak antolatuta.
10:00etan, Kirol Elkartearen egoitzatik. Helmuga: udaletxaren parean.

ETXARRI ARANATZ Ikuskizuna.

La Trapecista konpainiaren *Arxipiela* giro koreografiko ikuskizunaren emanaldia, *Sendaberri. Paisaia eszeniko berriak* programaren barruan.
17:30ean, kultur etxean.

IRURTZUN Antzerkia.

Irurtzuno antzerki tailerraren *La dama vuelve* antzeulanaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 3

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.
12:00etan, udaletxaren parean.

EZKONTZAK

• **Hiart Arratibel Etxeberria eta Imanol Espino Larrauri, marsuaren 22an Bakaikun**

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa bame dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Etxarri Aranatzaren pisu zentrikoa salgai: Hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta trastelekua, 78 m karratu ditu eta bizitzera sartzeko prest dago. Informazio gehiago 628 265 413 Edume.

IKASTAROA

Bertso Udalekuetan izen emateko epea: Marxoaren 24tik apirilaren 17ra arte. Argibide gehiago (Txandak, taldeak...) www.bertsozale.eus web orrian, 943 694 129 zenbakira deituz (astelehene-ostirala, 10:30etik 13:30era) edota aisialdia@bertsozale.eus helbidera idatziz.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Altsasuk Udalak Aisialdi-ko begiraleak eta zuzendaritza kontratatzeko poltsa osatuko du: Lan poltsan sartu nahi dutenek beraien eskaerak apirilaren 11tik 21era aurkeztu behar dituzte udaletxean edo Altsasuko Udalaren egoitza elektronikoa. Lan poltsaren indarraldia bi urterako izanen dela jakinarazi dute, 2023ko ekainaren 1etik 2025eko maiatzaren 31a arte.

Jaibuserako arduradunak behar dira: Interesa dutenek bi baldintza bete behar dituzte, adin nagusikoa izatea eta euskaraz jakitea. Informazio gehiago Sakanako Oinarrizko Gizearte Zerbitzuetan: Irurtzun aldekoek 605 466 805 tfnora deitu, Etxarri Aranatz

aldekoak 679 534 481 tfnora eta Altsasu aldekoak 616 841 995 telefonora.

Irurtzunen Kultur teknikari lanpostua aldi baterako betetzeko deialdia: Irurtzuno Udalak oposizio lehiaketa deitu du eta deialdia bera ordezkapen poltsa bat sortzeko baliatuko du, lanpostu horretan egon daitezkeen beharrik aldi baterako betetzeko. Kultur teknikari lanpostua lortzen duenak kirol teknikari funtzioak ere baditu. Unibertsitate ikasketak eta euskarazko C1 hizkuntza eskakizuna izan behar dira deialdian parte hartzeko. Informazio gehiago eta izen ematea www.irurtzun.eus web orrian edo Irurtzuno udaletxean. Eskabideak aurkezteko epea apirilaren 12ko 23:59ean amaitzen da.

Etxarri Aranatzeko Udalak hiru peoi aldi bate-

rako kontratu nahi ditu: Bi pertsona zerbitzu

anitzetako lantaldean ariko dira eta hirugarrenak kultura zerbitzuko zeregina beteko ditu. Deialdian interesa duten etxarriarrek apirilaren 11ra arteko epea dute izena emateko. Eskaera Nafar Lansarek Altsasun duen enplegu bulegoan egin behar da. Parte hartzeko bete behar dituzten baldintzak eta informazio gehiago www.etxarriaranatz.eus web orrian.

OHARRAK

Arakigilo Udalak Hernaniko Sagardotegi batera bazkari irteera antolatuko du: Txotx Sagardotegi bazkaria Hernanin, apirilaren 15ean. Ticketak udaletxean salgai 40 euroren truke, apirilaren 3ra arte. Informazio gehiago edo izena emateko deitu

948 500 101 edota 634 584 226 telefonotara.

Bakaikun egur lotea eskatzeko epea zabalik: Bakaikuko Udalak egur lotea eskatu nahi dutenek marxoaren 31era arte epea dutela jakinarazi du. Eskaerak udaletxean edo www.bakaiku.eus web orriaren bidez egin daitezke. Izen-abizenak eta telefonoa ematearekin batera, loteen eskatzailerak zehaztu behar dute egurra etxera nola eramanez dute. Bi aukera dituzten: betiko moduan etxeko baliabideak erabiliz egitea, edo udalak kontratatutako Arpana enpresaren zerbitzuak baliatzea. Azken aukera horren alde egiten duten bakaikuarrek egurra zein tokitan uztea nahi duten zehaztu beharko dute eskaera egiterakoan.

Uharteko Arakien etxerako epea

zabalik: Udaletxean izena eman behar da eta 35 euro ordaindu behar dira epea bakoitzarengatik eta egurra nork bere baliabide propioekin edo kanpoko enpresen bidez bilduko duen adierazi apirilaren 10a baino lehen guztia. Aurten zozketa publiko bidez banatuko dira epaitzak, ekainean. Epaitza eskuratzen dutenek uztailearen 1etik azaroaren 1era arteko epea dute epaitzak basotik jasotzeko.

Sakanako Etxera egune-ko bazkarirako txartelak salgai: Sarek antolatutako Etxera eguna Etxarri Aranatzeko eguna da, apirilaren 15ean. Bazkarirako txartelak Xapatero eta Leku Ona tabernetan salgai. Halduentzat 18 eurotan eta 14 urtera arteko haurrentzat 12 eurotan. Bazkaria frontoian izango da, 15:00etan.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburrak.eus



Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure hurre, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ
Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📍 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

FUTBOL PREFERENTEA

25. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Valle de Egües	1-0
Aibarés - Etxarri Aranatz	4-2
Lagun Artea - Doneztebe	3-2

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Amigo	56
8 Altsasu	36
17 Etxarri Aranatz	16
18 Lagun Artea	13

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAK 1, LARUNBATA

12:00 Doneztebe - Altsasu (*l. Indart*)12:30 Etxarri Aranatz - Amigo (*San Donato*)15:45 Rotxapea - Lagun Artea (*El Irati*)

Altsasuk Donezteben jokatu du

Egües irabazita sailkapenean postu bat gora egin eta gero, hamargarren den Doneztebe du arerio Altsasuk.

Etxarrik Amigo liderra hartuko du

Etxarri Aranatzek Amigo liderra hartuko du larunbatean San Donato zelaian. Amigok lidergoa du jokoan, eta Etxarri jaitsiera postuetatik ateratzeko borrokan dago.

Lagun Arteak Rotxapea aurkari

Lagun Arteak denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen, eta bide beretik jarraitu nahi du Rotxapearen kontra.

EMAKUME PREFERENTEA

KOPAKO 2. JARDUNALDIKO EMAITZA

Universidad de Navarra - Altsasu 7-1

SAILKAPENA

EMAKUMEEN KOPA AUTONOMIKOA.

1 Amigo	6
9 Altsasu	0

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAK 1, LARUNBATA

16:15 Altsasu - Gazte Berriak (*Dantzaleku*)

Altsasu, Kopako hirugarrena jokatzena

Kopa Autonomikoko hirugarren jardunean Altsasuk Gazte Berriak hartuko du.

FUTBOL ERREGIONALA

23. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu B - Kirol Sport 2-4

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Beti Onak B	60
12 Altsasu B	19

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAK 1, LARUNBATA

16:30 San Jorge - Altsasu B (*Sanduzelai*)

Altsasu vs San Jorge

Altsasuk sailkapenean laugarren den San Jorge taldea izango du aurkari.

Quesos Albenizek beste bi garaipen lortu ditu

TXIRRINDULARITZA Iker Gomezek juniorren XXXVIII. Atxukale Saria irabazi zuen Azpeitian eta Ekaitz Perezek kadeteen El Caserio Valsay txapelketa lortu zuen Tafallan, aste bat lehenago Ekain Imazek Zarautzen lortu zuen garaipenari segida emanez

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Kadeteen eta juniorren 2023 denboraldi hasi berria da eta Quesos Albeniz-Burunda taldeko txirrindulariek hasiera ezin hobea eman diote. Juniorren mailan XXXVIII. Atxukale Saria jokatu zen Azpeitian (87 km). Txirrindulariek bi aldiz igo behar izan zuten Kalbario gaina. Helmugara hemezortziko taldea iritsi zen. Iker Gomez (Quesos Albeniz) primeran kokatu zen eta txapeladuna izan zen (2:03:43). Adrian Martinez 29. sailkatu zen, Mikel Regil 37., Manex Zufiaurre 57., Asier Etxeberria 64., Iker Agudelo 68., Eñaut Oiarbide 80. eta Iker Begiristain 84.

Kadeteen mailan El Caserio Valsay lasterketa jokatu zen igandean Tafallan (53 km). Ekaitz Perezek eraso jo eta bakarrik iritsi zen helmugara (1:23:49). 2:23ra hamarrekoko taldea sartu zen: Luca Martinez seigarren sartu zen, Ekain Imazazpigarren eta Erik Laiglesia hamabigarren. Oihan Gorriti 29. sailkatu zen, Hegoi Garcia 30., eta Janitz Zufiaurre 33.

Iker Mintegi, aurrean

Laboral Kutxako Iker Mintegi txirrindulari altsasuarra larunbatean hirugarren sailkatu zen afizionatuen Haitzasko Oroimezkoan eta igandean bosgarren

izan zen Gorlako Igoeran. Euskaldun Txapelketako liderra da eta denboraldi hasierarekin pozik dago. "Garrantzitsuena hor aurrean egotea da" dio.

Arrieta eta Izagirre EH Itzulian

Astlehenean hasiko da Euskal Herriko Itzulia. Igor Arrieta (Kern Pharma) eta Gorka Izagirre (Movistar) izango dira gure ordezkariak. Itzulia asteartean Sakantik pasako da.

LXVI. Erramu Trofeoa, etzi

Altsasu Kirol Elkarteak antolatuta, igandean 10:00etan abiatuko da juniorren Erramu Trofeoa (101 km). Ibilbide luzeagoa du.

Gureak ongi Omnium eta Madisonean

Asteburuan Espainiako Omnium eta Madison Txapelketak jokatu ziren Palman. Ane Berastegik erorikoa izan zuen kadeteen omniumeko hirugarren postua defendatzen ari zela. Siets Goikoetxea bosgarren sailkatu zen kadeteen Madisonean, eta Martxel Etxeberria 13. eliteko omniumean. Bestalde, Ane Beltran de Heredia (Beratxa) Pontevedran lehiatu zen.



Txirrindulariak, Palman jokatutako txapelketan. NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Andoni Blasen eta Garikoitz Floresen podiumak

AUTOMOBILISMOA Blasek Etxalarko Usategietara Igoera irabazi zuen eta Flores hirugarren kaxoira igo zen Aian


Larunbatean, marsuak 25, Aiako Igoera jokatu zen, Euskal Herriko mendi igoeren denboraldia zabaldu zuen proba. 35 pilotuk hartu zuten irteera, Aiako bihurtune trabatuei ekiteko prest, eta horietatik 32k lortu zuten 3,78

kilometroko igoera despeditzea, bi entrenamenduak eta bi manga osatuta.

Azkarrena Jaizkibel eskuderiako Joseba Iraola izan zen (Nova NP-01). Pilotu bizkaitarrak hegan egin zuen Aian gora, denbora

ikaragarria eginez (1:40.319). 6 segundoko aldea atera zion Arkaitz Ordokiri (Nova NP-03, 1:46.935). Hirugarren postuan Sakana Motorsporteko Garikoitz Flores (X Talex M3) lakuntzarra sailkatu zen (1:51.834).

Egun berean XIII. Etxalarko Usategietara Igoera jokatu zen (4,45 km). Hemezortzi pilotuk hartu zuten parte, eta azkarrena Sakana Motorsport eskuderiako Andoni Blas Arzelus (Speed Car GT 1000) izan zen (3:05.154), erakustaldi polita eginez.



Beregaña, maldan gora. JAVIER BERGASA

ATLETISMOA Beregaña bigarren eta Congil bosgarren Etxaurin

Igandean XLII. Etxauriko Krosa jokatu zen, 7 km eta 433 metroko desnibela duen lasterketa mal-kartsu eta aldapatsua, guztira 97 korrikalarik osatu zutena. Beste behin, lasterketa gogorra izan zen.

Javier Nagorek eta Iñigo Maciasek lehia oso estua izan zuten, segundo txiki batzuen aldearekin erabaki zena. Azkenean Nagore gailendu zen (28:06), Maciasi 12 segundo aterata (28:18). Ekhi Congil etxarriarrak lan ederra egin zuen eta bosgarren sailkatu zen (31:27)

Beregaña podiumera

Emakumezkoetan Maria Ordoñezek ez zuen areriorik izan eta sailkapen absolutuan zortzigarren eta lehen emakumea izan zen (32:46). Maite Beregaña uharte arakildarra bigarren emakumea izan zen, sailkapen absolutuan 22. (36:21).

Bestalde, Ismael Lopez de Goikoetxea 46. sailkatu zen (40:10) eta Jose Antonio Salgado beterrano altsasuarra 71. (44:33).



Garikoitz Flores, Aian. UTZITAKOIA

Bederatzi aldiz Aralarra, exoeskeletoa erosteko

MENDIA Kepa Gordok Esklerosi Anizkoitz Nafarroa Elkartearen aldeko erronka solidarioa egingo du larunbatean Uharte Arakilen. Bederatzi aldiz igo nahi du San Miguelera, aurreko erronkan baino aldi bat gehiago, exoeskeletoaren aldeko kanpainan

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL. Joan den urteko marsuaren 19an Noelia Fundazioaren aldeko erronka solidarioa egin zuen Kepa Gordo mendi korrikalariak Uharte Arakilen. Gordo eta alboan zituen Alatz Agirre eta Ander Unzurrunzaga zortzi aldiz igo ziren Aralarra, eta antolatutako ekitaldietan 7.850 euro lortu ziren, kolageno VI defizitagatik jaiotzeko muskulu-distrofia dutenen alde Noelia fundazioak sustatzen duen ikerketarako.

Urte bat beranduago Kepa Gordok beste erronka solidario bat egingo du Uharte Arakilen. Aurtengoa Esklerosi Anizkoitz Nafarroa Elkartearen (ADEMNA) aldekoa izango da, eta larunbatean goizetik arratsaldera Uhartan antolatutako ekitaldietan (ikus agenda) lortutako dirua elkarteari bideratuko zaio. "EITBko Maratoia ikusten, esklerosi anizkoitza duten pertsona asko kirolaren mundukoak zirela konturatu nintzen. Ekarpena egiteko asmoz Esklerosi Anizkoitz Nafarroa Elkartearekin jarri nintzen harremanetan, exoeskeletoa erosteko duten kanpainaren berri izan nuen, eta euren aldeko erronka solidarioa antolatzea erabaki nuen, egitasmoa gizarteratu eta diru bilketa egiteko" azaldu du Kepa Gordok.



Kepa Gordo, Ander Unzurrunzagaren eta Alatz Agirrearen artean, joan zen urteko erronkan.

2022an zortzi aldiz igo zen San Migelera, eta aurtengoa beste bat gehiago egiten saiatuko da. Bederatzi igoera guztira. "Indartsu sentitzen naiz. Entrenamenduak ongi doaz eta inoiz baino gogotsuago nago, nire anaia ere presente izango dudalako. Abenduan zendu zen, eta bera ere korrikalaria zen aldetik, badakit ekimena gustatuko litzaiokeela. Hau ere berarengatik egiten dut" dio.

Gordok goiz hasiko du erronka, 6:00etan. Dantzaleku Sakana bere klubeko kideak izango ditu laguntzaile. Igoera eta jaitziera

bakoitza "ordu bat eta 20 minutu inguruan" egiten du, eta bederatzi igoeratan denbora horretan ibiltzea aurreikusten du "bestela ezinezkoa delako". Lanak bukatuta kiroldegira 18:00etan iritsiko dela aurreikusten da. Gordo "oso babestua" sentitzen da. "Uharte Arakilgo Udalaren, ekimenean parte hartuko duten taldeen eta boluntarioen laguntza eskertzekoa da. Sakandar guztiak Uhartera hurbiltzera animatzen ditut, euren ekarpena egitera, ADEMNA-k exoeskeletoa erosi ahal izateko.

"Kanpainaren azken bultzada Keparen erronkarekin lortu nahi dugu"

KATTALIN ARMENDARIZ IRASTORZA FISIOTERAPEUTA

Hiriberriko Kattalin Armendariz Irastorza Esklerosi Anizkoitz Nafarroa Elkarte (ADEMNA) fisioterapeuta da ibeltzetik, elkartearen Iruñeko egoitzan. Ostiralero Altsasuko Aita Barandiaran egoitzara hurbiltzen da, esklerosi anizkoitza duten egoiliarrei tratamendua egitera.

Esklerosi Anizkoitz Nafarroa Elkarte kanpaina berezia bulkatzen ari da, exoeskeleto bat erosi ahal izateko.

Bai. Exoeskeletoa aparailu garestia da, 100.000 euro baino gehiago balio du. Duela bi urte elkartean exoeskeletoaren demostrazio bat egin zen, oso hunkigarria izan zena. Exoeskeletoaren onurak ikusi ziren, eta aparailua erosteko kanpaina martxan jarri zen. Juan



UTZITAKOA

Larreta antsoindarra da sustatzaileetako bat. Esklerosi anizkoitza du, eta kanpainan izugarri mugitu da. Kanpainaren barruan txokolate solidarioa ekimena dago, hau da, txokolate tabletak 2 eurotan salgai jarri dira Iruñeko denda askotan eta gure elkartean. Bestalde, diru

bilketarako ekimen ezberdinak burutzen ari gara.

Exoeskeletoaren onurak horren garrantzitsuak al dira?

Bai. Esklerosi anizkoitza duten pertsonengan efektuzuzena du, bizi kalitate hobea lortzen laguntzen dielako. Exoeskeletoak ez luke eguneroko fisioterapia aldera utziko, baina terapia horri falta zaion estra bat izango litzateke.

Exoeskeletoa gertutik ikusi al duzu?

Ubarminen lanean nengoenean demostrazio bat ikusi nuen.

Pertsona horrek ibiltzearen sentsazio hori berriz bere gorputzean nabaritzea emozionalki txute bat bezala izan zen. Oso polita izan zen. Exoeskeletoarekin helburua ez da ibiltzen ez diren pertsonak berriz ere oinez ibiltzea, baizik eta sentsazio hori bizi dezatela eta burmuinari esatea eta gogoraraztea ibiltzeko funtzio hori hor duela, gure gorputzak funtzio bat galtzen duenean, gure burmuinetik desagertzen delako. Neuroplastizitatea izena du kontzeptuak, burmuinean dauden area desberdinek funtzio hori hartzearena.

Nola doa diru bilketa?

Ongi goaz, baina azkeneko bultzada falta zaigu, eta hori Kepa Gordok Aralarra San Migelera 9 aldiz igotzeko mendi erronkarekin lortu nahi dugu. Ea posiblea den. Halako ekimenak guretzako beti dira ongi etorriak, eta jende guztia animatzen dugu larunbatean Uhartera hurbiltzera eta bere laguntza ematera. Bestalde, elkarteko lokala txikia geratu zaigu, eta ondoko lokala alokatu nahiko genuke, exoeskeletoarekin erosoago ibiltzeko.

Jarduera mundialak

MENDIA Alex Txikonen Manasluren proiektioarekin bukatu ziren Iratxo elkartea eta Irurtzango Udalak antolatutako Mendi Jarduerak. Balorazio "oso positiboa" egin dute, "ekitaldi guztietan erantzuna handia" izan delako. Txikonekin argazkia atera zuten Iratxokoek, apirilaren 29ko Sakanako Ibilaldirako deialdia eginez. Apirilaren 1ean zabalduko da izena ematea.



UTZITAKOA



Andra Mari eta Iñigo Aritzak taldeko tiratzaileak, elkarri agurtzen.

Andra Mari txapeldun, eta Iñigo Aritzak brontzezkoa

HERRI KIROLAK Etxarri Aranatzek 36. Nafarroako Herri Kirol Jokoen laugarren jarduna hartu zuen, kadeteen mailako sokatira eta proba konbinatuen txapelketak erabaki zituen. Kimuen eta haurren mailako finalak igandean erabakiko dira, Igantzin

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoen laugarren jardunaldia jokatu zen mukuru beteta zegoen Etxarri Aranatzko Euskalerriri pilotalekuan. Sakanako Andra Mari eta Iñigo Aritzak ikastoletako taldeek eta Igantzi, Antsoain, Basaburua, Berriozar, Paz de Ziganda eta Araxes klubetako taldeek zuten guztia eman zuten. Proba konbinatuetan 41 talde lehiatu ziren eta, sokatiran, 11.

Kadeteen txapelak, erabakita Kadeteen mailan azken jardunaldia hartu zuen Etxarrik. Jokotutako lau jardunaldien emaitzak kontuan hartuta, proba konbinatuan Igantzi izan zen

Nafarroako txapelduna, Araxes eta Antsoain taldeen aurretik. Andra Mari bosgarren sailkatu zen.

Kadeteen sokatira txapelduna Andra Mariko Hotsein taldea izan zen (14,5 puntu), Antsoain (14,5 puntu) eta Iñigo Aritzak (12 puntu) taldeen aurretik. Andra Marik, Iñigo Aritzak eta Antsoainek txapelketan izan zuten lehia oso estua izan zen, baina euren arteko tiraldietan Andra Mari gailentzen zen, eta horrek erabaki zuen txapela.

Igantzi finala

Igandean, apirilak 2, Nafarroako Herri Kirol Jokoen azken jardunaldia jokatu da Igantzin,

kimuen eta haurren mailako final handia.

Kimuen proba konbinatuko finala Andra Mari 5, Araxes, Andra Mari 4 eta Antsoain A taldeek jokatu dute, aurreko lau jardunaldietan egindako emaitza onei esker. Andra Mariko gainontzeko taldeek eta Iñigo Aritzakoez ez zuten finalerako txartela lortu. Haurren proba konbinaturako finalerako Araxes, Berriozar, Andra Mari 3 eta Igantzi sailkatu ziren.

Azkenik, haurren mailako sokatirako azken jardunaldian Andra Mari eta Hotsein taldeek parte hartuko dute, Araxes, Berriozar, Antsoain A eta Antsoain B taldeekin.

"Ea txapela lortzen dugun, Xabiri eta Jokini eskaintzeko"

JOSE JAVIER ZABALETA LASA PILOTARIA

PILOTA Zabaletak eta Elordik Lasoren eta Imazen kontra jokatu dute Binakako finala. Tolosari gertatutakoa akuilu, taldekideei eskaini nahi diete txapelaren zatitxo bat

Maidar Betelu Ganboan ETXARRIEN Binakako finalerdian Tolosa lesionatu zen une gogorra buruan iltzatuta dute pilotazaleek. Altunak uko egin zion jokatzeko jarraitzeari -"finala zurekin baino ez, eta ezin bada, hor konpon" esan omen zuen, eta Zabaleta eta Elordi lur jota, malkoei ezin eutsi azaldu ziren, lagunak finalean egotea merezi zuela adieraziz. Emozioak hitz egin zuen, eta kiroltasunik eta laguntasunik bada, hori izan zen adibiderik argigarrienetakoa. Baina pilotaren gorpil zoroak aurrera jarraitzen du, eta igandean Zabaletak eta Tolosak Laso eta Imaz izango dituzte aurkari Nafarroa Arenan jokatu den Binakako final handian. Sarrerak agortuta daude, ikusmina handia da eta Tolosa eta Altuna taldekideei txapel preziatu horren zatitxo bat eskaintzea, horrek ere mugitzen ditu Zabaleta eta Elordi. **Zeinen gogorra izan zen igandekoa, Tolosa lesionatu zen une hori.**

Oso gogorra. Igandea oso arraroa izan zen, oro har. Finalera sailkatzea genuen jokoan, horrek dakarren tentsioarekin, eta partida bukaeran Tolosaren lesioa gertatzea pena handia izan zen. **Gainera partida ikusgarria ari zen izaten, epikoa. Lau pilotariak ikusgarri ari zireten.**

Partida oso gogorra izan zen. Ez nuen gorputzaldi ona. Tripak gaizki sentitzen nituen eguerditik, eta ez nintzen oso ongi sentitzen. Partidan asko nekatu nintzen. Altunak eta Tolosak sekulako partida egin zuten; partida asko gogortu zuten, eta askotan beteta sentitu nintzen. Izugarri sufritu nuen.

Fisikoki ez zenuela ongi bukatu eta eskuak ere nahiko justu zenituela esan zenuen. Nola zaude?

Astelehenean lehenengo orduan masaje on bat hartu nuen. Masajistak kristoren lana egin zuen nirekin. Hobeki sentitzen naiz, gorputza askoz hobe dut eta eskuak baita ere. Egun hauetan ongi errekupepatzen saiatuko naiz.

Orain arte bi aste epea izaten zenuen finala prestatzeko. Atsedean hartu, komunikabideei adierazpenak egin eta entrenatzeko tartea zenuen. Baina aurten aste bat izanda, agian garrantzitsuagoa izango da deskantsatzea entrenamendu gogor bat egitea baino.

Hala da, dagoen denbora urriarekin ez dugu entrenamendu gogorrik egingo. Ostegunean geratuko gara entrenatzeko (elkarrizketa asteartean egin zen), baina ez da saio gogorra izango. Egun gutxi daude igandeko fina-

Kopako txapeldunordeak

PILOTA Irurtzunik 84. Errege Kopa jokatu zuen asteburuan Logroñoko Adarragan. Finalerdia erraz gaudituz zuten Irurtzunik pilotariak, baina finalera nahikoa ukitura iritsi ziren. Alberto Ongayk Beñat Senar urakana (Urbion) ezin izan zuen gelditu, eta Aingeru De la Fuentek eta losu Bergerak ezin izan zituzten Oihan Canabal eta Joseba Aldave (Oberena) eutsi.



UTZITAKOA

la prestatzeko eta gehienbat atse-
den hartuko dugu.

**Egunotan Binakako Txapelketaren
gogortasuna kritikatu dute zenbait-
tzuk. Hasierako ligaxkan 14 jardun-
aldi jarraian jokatzeko eta segidan
play-offak, finalerdietako hiru jar-
dunaldiko ligaxka eta finala jokatzeko
demasa dela. Pilotariei eta pilotari
berari ez diola onik egiten.**

Agian pixka bat gehiegi izan dai-
teke. Binakakoa oso txapelketa
luzea da, hilabete askokoa. Aste
asko zaude txapelketan sartuta,
eta horrek asko nekatzen du.
Pilotariak finalera nola iristen
ari garen, justu, argi ikusi da.
Aurreko astean Lasok eta Imazek
baja egin zuten eskuetatik justu
zeudelako, Tolosaren lesioa igan-
dean... Oso txapelketa zaila eta
luzea da.

**Honen inguruan enpresek hausnar-
tu beharko luketela uste al duzu?**

Baliteke. Niri, bereziki, aurtengo
txapelketa orain arteko gogorre-
na iruditu zait. Ez dakit zergatik.
Agian ni okerrago iritsi nintze-
lako txapelketara edo arerioak
indartsuago ibili direlako, Ez
dakit zergatik den, baina oso go-
gorra iruditu zait. Txapelketa
laburragoa jartzea aukera bat
izan daiteke.

**Inork ez du ukatzen final horretan
egoteko Elordik eta biok duzuen
meritua. Txapelketa ikusgarria egin
duzue. Ligaxkako liderrak izan zi-
neten, 14 partidetatik 12 irabazita,
eta finalerdietan ere serio aritu zi-
neten, Altunaren eta Tolosaren
kontra oraindik ez baitzegoen ezer
erabakita. Zu txapelketako pilotaria
izan zarela diote askok, maila ika-
ragarria erakutsi baituzue.**

Lehenengo esaldiarekin ados
nago. Bion artean txapelketa bo-
robila egin dugu orain arte. Oso
ongi konpondu gara elkarrekin,
eta bikotea osatu dugu. Eta txa-
pelketa honetan hori da garrant-
zitsuena. Nire mailari dagokio-
nez, esan dudana bezala aurtengoa
orain arteko txapelketa gogorre-
na izaten ari da. Zorrotza naize-
nez, pentsatzen dut agian hobeki
ibili beharko nuela, baina egin-
dako txapelketarekin, egia esan,
pozik nago. Partida asko irabazi
ditugu, eta orain beste bat gehia-
go nahi dugu. Txapela lortzeko
aukera dugu, eta ongi borrokatzen
saiatuko gara. Ea aurrera ateraz-
ten dugun.

**Elordi eta biok oso ezberdinak za-
rete. Elordi hitzontziagoa, anima-
tuagoa, eta zu lasaiagoa eta serioa-
goa. Agian horregatik konpondu
zarete horren ongi?**



Jose Javier Zabaleta eta Aitor Elordi, astelehenean Eibarren. F. DE LA HERA

Berarekin oso ongi ibili naiz.
Aitor oso alaitu ikusi dut, beti
dago umore onez. Ni lasaiagoa
naiz, eta azkenean badirudi bere
alaitasuna eta nire lasaitasuna
oso ongi konpondu direla.

**Hasierako ligaxkan bi partidak ira-
bazi zenizkieten Lasori eta Imazi,
eta finalerdietako ligaxkan 22 eta
19 galdu zenuten euren kontra.
Elordik egun horretan izan zuen
beheraldia agian ongi etorriko zai-
zue finalari begira, txakalalditik
aurrera gora egin baitu Elordik.**

Horixe bera pentsatzen dut. La-
soren eta Imazen kontrako fina-
lerdian Aitorrek ez zuen egun
ona izan. Urduri egon zen, blo-
keatuta. Baina hori normala da;
txapelketako hamaseigarren
partida zen, eta aurreko guztietan
ongi jokatu zuen; oso zaila da
partida denetan ongi jokatzeko.
Egun txarra izan zuen, baina
Altunaren eta Tolosaren kontra
ikusitako aurreko asteko partida

**"NIRI, BEREZIKI,
AURTENGO
TXAPELKETA ORAIN
ARTEKO GOGORRENA
IRUDITU ZAIT"**

hori ahaztua zuela eta berriro
oso ongi dagoela.

**Lasoren eta Imazen kontra finalean
jarraitu beharreko estrategia pre-
statu al duzue? Ala unean bertan
erabakiko duzue nondik jo?**

Partida aurretik beti prestatzen
duzu zerbait, baina gero, partida
nola doan ikusita, beti zerbait
aldatu edo egokitu egin behar
izaten da. Beraz, zenbait plante-
mendu erabakita utziko ditugu,
eta gero, partidaren martxa iku-
sita, aldatu behar badira, hala
egino dugu.

Nafarroa Arena gustuko al duzu?

Bai. Lasai nago, ezagutzen dudana
frontoi bat delako. Elordik ere
bertan jokatu du eta ezagutzen
du. Beraz, alde horretatik ongi.
Frontoi gogorra da, baina beti
nahiko ongi moldatuna izan da.
Nafarroa Arenan.

**Igandeko finala kontuan hartu gabe,
orain arte Binakako lau final jokatu
dituzue eta hiru txapela irabazi di-
tuzue: 2013an Irujorekin lortutakoa,
Berasaluzeren lesioa tarteko; 2018an
Ezkurdiarekin lortutakoa; eta 2021ean
Elezkanorekin eskuratutakoa. Lau-
garren txapela litzatekeena janzte-
ko gogotsu al zaude?**

Bai, beste final bat irabazteko
gogoz nago. Elordik final hau
jokatzeko duen ilusioa sekulakoa

da; ea partida ona egiten dudana
eta Aitor laguntzeko aukera du-
dan, bere lehenengo txapelketa
nagusia eta lehenengo txapela
litzatekeena lortzeko. Ea finala
aurrera ateratzen dugun. Bestal-
de, nire Binakako laugarren txa-
pela litzateke, eta hori ere itzela
litzateke. Esan didatenez, Titinek
lau txapelketa irabazi zituen Bi-
naka, eta hori berdintzea mun-
diala litzateke.

**Elordiren ilusioa zurearen gainetik
jarri duzu. Debutatzen duen pilota-
ri baten ilusio berezi horrek harra-
patzen du, kutsagarria da.**

Bai. Aitor Elordi maila handian
jokatzen ari da, baina txapelke-
ta nagusi batean debutatzeko
aukera pixka bat berandu suer-
tatu zaio. Izan ere, gure enpresan
aurrelari oso onak daude, eta
zaila da txapelketetan sartzea.
Aitor oso motibatuta dago, alai-
tsu, ilusioz gainezka, baina aldi
berean oso lasai dago. Horrek
ere niri asko laguntzen dit, aste
erabakigarri honetan lasai egon
eta konfiantza hartzeko.
**Finala oso zaila izango da, estua.
Hor ez dago zalantzarik.**

Txapelketa guztian barna parti-
da oso zailak egoten dira, baina
finala zailena izaten da beti.
Hasteko, beraiek ere txapela lor-

tu nahi dute. Euren kontrako
finalerdiko partida oso gogorra
izan zen. Lasori eta Imazi irabaz-
tea asko kostatzen da. Finaler-
dian ez genuen lortu, hortaz,
finalean gauzak oso-oso ongi egin
beharko ditugu eurei aurre egin
eta irabazteko.

**Galdu edo irabazi, ospakizunen bat
egin beharko duzue.**

Hala espero dut. Ea egunotan
finala gustura prestatzen dugun,
eta ondoren zerbait polita egite-
ko aukera dugun.

**Zu Etxarrengoaz zarezeko eta Aitor
Mallabikoa, elkarrekin ospatzea
zaila duzue.**

Elkarrengandik urruti bizi gara,
eta oso zaila da puntu batean
elkartzea. Bakoitzak bere aldetik
ospatuko dugu.

**Txapela lortuz gero, puska bat To-
losarendako eta Altunarendako
izango da, ezta?**

Noski. Igandean esan nuen mo-
duan, Tolosa betidanik oso ongi
portatu izan da nirekin. Harre-
man oso ona dugu. Urte asko
daramatzagu elkarrekin entre-
natzen, askotan ikusten dugu
elkar, batzuetan ia astero. Beti
esaten dut Aspen kristoren taldea
dugula, denak oso ongi konpon-
tzen gara. Txapela lortzen badu-
gu beraiendako izango da ere,
eurek ere finalean sartzea me-
rezi zutela uste dudalako. Gure
kontra sekulako partida jokatzeko
ari ziren biak.

**Altunak, Elordik eta hirurok Tolo-
saren lesioaren aurrean izan zenu-
ten elkartzunezko erantzuna biho-
tzetik sortutakoa izan zen, pilota-
zaleak guztiz hunkitu zituenena. Bere
txarrean, irudi polita eman zutenen.
Ea igandean, txapela lortuta, boro-
biltzerik duzuen.**

Horretan saiatuko gara. Ea txa-
pela hori lortzeko gai garen, gure
lagun eta lankideei zatitxo bat
eskaintzeko.



Pello Osororen beste erakustaldi bat Arbizun

DUATLOIA Eibarkoak 3 minutu pasa atera zizkion Mikel Astiz ihabardarrari. Emakumezkoetan, Altsasuko Duatloia irabaztetik zetorren Nuria Rodriguezek irabazi zuen Arbizun. Arbizuko Duatloia 25. edizioa zenez, sortzaileek omenaldia jaso zuten

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Arbizuko Duatloiak 25 edizio bete zituen eta proba hasi baino lehen Arbizuko Udalak sortzaileak gogoan izan zituen. Sebastian Insaustiri, sortzaileetako bat eta orduan udaleko kide zen Antonio Ieregiri, aureskua dantzatu zitzaizen. Eguzkitsu baino fresko zegoen, eta duatletek bazekiten haizea kontra izango zutela.

Arbizuko Duatloia, aldi berean, Nafarroako Duatloi Estandar Txapelketa izan zen. Hasteko, irteera hartu zuten 106 duatletek herrian prestatutako zirkuituari bi itzuli (8 km) eman zizkieten. Lehen itzulian Mikel Faberrek (Kirol Bat) Mikel Astiz ihabardarrari (Hiru Herri) eta Pello Osoro eibartarrari (Peñota Dental Alusigma) alde atera zien. Baina trantsizio gunean bizikleta hartzen lehena Alberto Diaz (Bombers Vitoria Triatlón) izan zen, ondo-ondoan, Pello Osoro eta Mikel Astiz zituela.

Bizikletan apurtu zuen proba

Bizikleta tartean -Lizarragako Katea igo, Etxarri Aranaztik jaitsi eta Arbizurainoko buelta, bi aldiz, guztira 32 km osatuta Osorok hegan egin zuen. Nagusitasun handia erakutsi zuen, hiru minutu pasa atera baitzizkion Mikel Astizi. Ihabarkoaren



Proba hasi baino lehen omenaldia jaso zuten Arbizuko Duatloiko sortzaileek.

indargunea bizikleta dela kontuan hartuta, sekulakoa. 4 kilometroko azkeneko korrikaldian Osorok aldeari eustea lortu zuen, eta txapeldun handia izan zen (1:36:55). 3 minutu eta 12 segundora Mikel Astiz sartu zen, lehen nafarra, eta, beraz, Nafarroako Duatloi Estandar txapelduna. Hirugarren Ion Bermejo (Aoiz) izan zen (1:41:52). "Haizea kontra izan dugu, baina okerrago izango zela pentsatzen nuen" zioen Osorok helmugan. Arbizun aspalidiko ezaguna da Osoro. Behin bizikletan etorri zen Eibartik,



Astiz, Diaz eta Osoro, bizikleta hartzen.

segidan duatloi probari ekiteko. Askok pasadizoa gogoan zuten. "Uste dut laugarren aldiz irabazi dudala hemen, ez nago ziur" gaineratu zuen, garaipenarekin pozik.

Astiz, Nafarroako txapelduna

Mikel Astiz ere kontentu zegoen. "Joan zen urteko denbora tarte berean ibili naiz, eta pozik nago. Osororena, apartekoa da" azaldu zuen Nafarroako txapeldunak. Denboraldi hasiera gogorra izan du, astebururo probaren bat izan baitu, eta zenbait garaipen, Altsasuko Duatloia tartean. "Apirilaren 1ean, Zuiako Duatloian aritu eta gero atsedean hartuko dut". Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulatek ere maila bikaina eman zuen, seigarren sailkatu baitzen (1:44:15). Eta Francisco Javier "Pitxi" Gomezen lana azpimarratzekoa izan zen, Altsasuko beteranora 18. postuan sailkatu zen, V2 beteranora mailako txapelduna (1:50:19).

Aurten paratleta batek hartu zuen parte, ikusmen arazoak dituen Iñaki Hernandezek. Sanchez izan zuen gidari, eta bizikleta tartea tandem bizikletan osatu zuten. 68. sailkatu ziren (2:18:22).

Rodriguez, bigarrena jarraian

Emakumezkoetan astebete lehenago Altsasuko Duatloia irabaztetik zetorren Hiruki taldeko Nuria Rodriguezek ez zuen areriorik izan (2:00:59). Ia hiru

MIKEL ASTIZ ETA NURIA RODRIGUEZ DIRA NAFARROAKO DUATLOI ESTANDAR TXAPELDUNAK

Sakandarrak

25. Arbizuko Duatloia

Arbizuko Duatloia:

8 km-32 km-4 km

• Gizonak

1. Pello Osoro	1:35:55
2. Mikel Astiz	1:40:07
6. Sergio Garcia Eulate	1:44:15
18. Fco. Javier Gomez	1:50:19
27. Antton Zelaia	1:51:26
42. Ruben Garcia	1:57:41
50. Jose I. Mikeo	2:00:19
59. Mikel Lakuntza	2:07:49

• Emakumeak

1. Nuria Rodriguez	2:01:59
--------------------	---------

• Erreleboak

1. Mercedes Avello / Erik Sebastian	2:01:07
-------------------------------------	---------

Arbizu, herrikoia:

4 km-16 km-2 km

• Gizonak

1. Oier Irazusta	52:16
12. Luismi Chaves	1:04:14

• Emakumeak

1. Niobe Arregi	1:03:12
-----------------	---------

minutu atera zizkion Cafes Foronda taldeko Diana Vecillasi (2:04:58). Carlota Perurenak (Diablillos de Rivas) itxi zuen podiuma (2:06:53). "Haizeak kontra jotzen zuen, baina bereziki korrikako tartean nabaritu dut. Bizikletarekin gustura ibili naiz" azaldu zuen Rodriguezek.

Herrikoia

Proba herrikoian edo Arbizuko Duatloiko distantzia erdian (4 km korrika, 16 km bizikletan eta 2 km korrika) Añorga Kirol Elkarteko Oier Irazusta jubenila gailendu zen (52:16), Hiru Herriko Iker Lopezzi 2:24 minutu aterata (54:40). Julen Ornat hirugarren izan zen (55:11). Emakumezko onena Hiru Herriko Niobe Arregi jubenila izan zen (1:03:12). Luismi Chaves lakuntzarra 13. postuan sartu zen (1:04:14).

Xotako talde guztiak, batera

ARETO FUTBOLA

Xota klubak bere harrobiko talde guztiak eta Lehen Mailako Osasuna Magna Xota talde nagusia aurkeztu zituen marsuaren 17an Irurtzunen. Aurten 25 urte betetzen dira MRA Carsal Xota Zilarrezko Mailatik Ohorezko Mailara, garai hartako Lehen Mailara igo zela eta Zilarrezko Kopa irabazi zuela. Urteurren berezia guztien ahotan egon zen.





2022ko ZEIDFESTaren irudi bat. @ZEID_FEST

E. C. M. eta E. R. B. ARBIZU

"Zeinen ederra izango den, eguzki izpiak zure itzalak belarretan marrazten..." 2020ko apirila zen ZETAK taldeak *Zeinen Ederra Izango Den* abestia kaleratu zenean. Koronabirusaren pandemiaren eta itxialdiaren erdian. Abestia ia ereserki bat bihurtu zen, garai horretan bizi zenaren "itxaropen" kantu bat. Handik gutxira eta esperantza mezuarrekin jarraituz Pello Reparazen musika proiektuak jaialdi bat antolatuko zuela jakinarazi zuen. Hasiera batean data bat baino ez zuen jarri, eta tokia jakin gabe ere sarrera asko saldu ziren. Festibalaren izena ZEIDFEST: Zeinen Ederra Izango Den Fest. Pandemia egoera zela eta, festibalaren ospakizuna atzeratuz joan behar izan zuten 2022ko apirilaren 2ra arte; lehenengo ZEIDFEST jaialdia egin zuten Barakaldoko BECen, oso arrakastatsua. Gelditzeko sortutako jaialdi bat zela ikusten zen, eta, momentuz, bigarren edizioa bihar, apirilaren 1ean, egingen dute.

"Pello Reparazen buruan sartu behar gara jaialdiaren sorrera ulertzeko. Hainbeste urtetan beste musika talde batean ibili ondoren, proiektua amaitu, zenbait urte ikasten egon, dirua aurreztu proiektu batean inbertsioa egiteko, ZETAK munduratu eta hiru hilabetetara pandemia". Julen Hernandez ZEIDFESTaren komunikazioa eta estrategia arduraduna da, eta azaldu duenez,

"Izugarrizkoa" izaten ari da

Bihar, apirilaren 1ean, larunbata, Barakaldoko BEC! Bizkaia Aretoan ZEIDFEST Pello Reparazen ZETAK proiektuaren baitan sortutako jaialdiaren bigarren edizioa ospatuko da. Euskal Herriko eta kanpoko goi mailako musikariek parte hartuko dute

2023. urtetik eta "nire ikuspegitik" jaialdiaren sorrerara joatea "zaila" egiten zaio.

Kontzertu guztiak bertan behara gelditu ziren eta itxialdiaren garai horretan, jarraitu du Hernandezek, Reparazek bere buruari proiektu berri horrekin zer gertatuko zen galdetuko ziola esan du: "Egun horietan bere lehengusinarekin, Iratxe Reparazekin, hitz egin zuten abesti bat egin zezaketela etorriko zenari buruz hitz eginez, pentsatuz agian horrela zulo beltz horretatik atera zezaketela". Euskal Herriko zaleei udako bideoak bidaltzeko eskatu zieten eta 24 ordutan Iratxek bideoklipa egin zuen: "*Zeinen Ederra Izango Den* abesti bat izatetik garraxi bat izatera pasa zen, itxaropen oihi bat". Horrenbesteko arrakasta izan zuenez, "hainbeste konektatu zuten jen-

deak abestiarekin", bilakaera "logikoena" jaialdi bilakatzea zela pentsatu zuten. "Horrela sortu zen ZEIDFEST".

Berezia

Lehenengo edizioan itxaropen oihua luzatu zuten, eta helburua bete zen. Baina jaialdiaren inguruan askoz gehiago sortu dela esan du Hernandezek: "Gauza batzuk lantaldearen hautuak eta landutako gauzak izan dira, beste asko zoriz gertatu dira eta eskerrak gertatu direla izugarritzkoa izaten ari delako". 2022ko apirilean, lehenengo edizioa

JAIALDI BAT BAINO GEHIAGO BIHURTU DA, "FILOSOFIAREKIN BAT EGITEN DUTEN HAUTUAK SARTU DIRA"

ospatu zenean, esaterako, oraindik musukoa eramatea beharrezkoa zen, "eta pentsatzeko denbora gehiago eta askatasun gehiago izan dugunez, gure filosofiarekin bat egiten duen jaialdia prestatzeko garaian hautu politiko asko sartu dira ere: aniztasuna, eszenatokiaren gainean gertatzen denaz gain publikoan ere animazioa egotea, euskal trabestiak behar ditugu eta haiek behar duten eta mezezi duten espazioa eman nahi diegu eta beste hainbat gauza".

Jaialdian parte hartuko duten musikariendako ere ZEIDFEST berezia izango dela esan du komunikazio arduradunak: "Bat-batean aurkitu gara non musika talde oso-oso handiek publikoki esan dute haien abesti berriak lehen aldiz ZEIDen joko dituztela". Nogen taldeak Interneten estreinatutako single berria

bihar joko dute lehenengo aldiz taularen gainean; Kerobiak berdina egingo du; Esne Beltzak-en abesti berri bat aurkeztuko du jaialdian eta Zaharak esan zuten biran Internetera igo aurretik abesti bat jotzen ariko dela eta abesti eksklusibo hori ZEIDen joko du lehenengo aldiz. "Gertatzen ari dena guk ez genuen aurreikusten".

Duela zenbait aste konfirmatu zuten Pello Reparazek ZETAK taldea ZEIDFESTen egongo zela. Harekin batera La M.O.D.A, Vicco, Nögen, Don Patricio, Zahara, Esne Beltza, Samantha Hudson, Hemendik At! taldeari omenaldia egingo diote, Gozategi, Doctor Deseo, Eñaut Elorrieta, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Olaia Inziarte, Kerobia, Mirua, Skabidean, Motxila 21, La Furia, Txiltxoko, La Fumiga, Elektropottote, Kukai eta Lucho SSJ taldeek eta abeslariak osatzen dute 2023ko ZEIDFESTaren kartela. "Altxor pila bat daude". Lehenengoa atek ireki orduko izango dela esan du Hernandezek, "10:30ean irekiko ditugu atek eta jendea lehenbailehen sartzea gomendatzen dugu ilarak ekiditeko. Gainera, hamabost minutu aurretik BECeko atetik ZEIDFESTeko ateraino Hondarribiko Jaizkibel konpainiak desfilea egingo du". Ekimen horrek ZEIDFEST zer izango den, zer izan nahi duten eta zer komunikatu nahi duten markatzen duela esan du komunikazio arduradunak.



Altsasuko Iortia Antzerki Tailerreko kideak. IORTIA

Antzerki tailerrak, bizipenak taularatuz

Irurtzango eta Iortia antzerki taldeek aurtengo antzezlana mustuko dituzte aurki; gaur, bihar eta etzi 'La dama vuelve' Irurtzango herriko kultur etxean, eta apirilaren 15ean 'Estrellas de la muerte' Altsasukoak, Iortia kultur gunean

IRURTZUN / ALTSASU

Ibilbide luzea dauka Irurtzango Antzerki Tailerrak. Duela hogeitau urte baino gehiago sortu zen, Patxi Mikeo kultur teknikariak tailer eta ikastaro berriak atzartzeko proposamena luzatu zuenean. Tere Otxoa Irurtzundarrak antzerki tailerraren ideia bota zion, eta horrela sortu zen Irurtzango Antzerki Tailerra hamar kideekin. Ordutik, urtero antzezlana bat taularatu dute eta aurtengo gaur, bihar eta etzi, ostirala, larunbata eta igandea, *La dama vuelve* antzezlana mustuko dute, Irurtzango kultur etxean. Antzerki tailerrean izandako garapenaren erakusle izanen da lana.

Altsasuko Iortia Antzerki Tailerrak ere esperientzia handia dauka taularen gainean. Taldeko kideen sormenetik hutsetik sortzen dituzte antzezlana eta apirilaren 15ean, larunbata, *Estrellas de la muerte* antzezlana mustuko dute, Iortia kultur gunean.

"Tailerrean gehiago gara, parte hartzea handitu egin da. Horrek esan nahi du aukera gehiago ditugula, erregistro gehiago, istorio gehiago kontatzeko". Horrela hasten da Irurtzango Antzerki Tailerrak ostiralean, larunbatean eta igandean emanen duen *La dama vuelve* antzezlaren sinopsia. Antzerki tailerrak irekiak dira, eta kide gehienek urtero errepikatzen duten arren, bizitzaren gora beherak eta zenbait arrazoi direla, tailerrean joan eta etorriak izaten dira. "Utzi zuen jendea itzuli da eta jende berria agertu da". Ospatzeko arrazoiak dela diote Irurtzango tailerretik.

Dama

Antzerki tailerra "topagune" bat dela esan dute Irurtzundik eta "herriarekin partekatzen den istorio bat sortzen gozatzen duena". Hortaz, aurtengo antzezlana *La dama vuelve* da. "Duela urte asko utzi zigun dama bat itzuliko da taula gainera". *La dama vuelve* lana, beraz, itzu-

liko den dama horri buruz izanen da. "Herrian jakinmin ez eta ilusioz itzaroten dugu, egungo krisi garaian salbazioaren parte delako". Horretarako prestatzen ari dira herriko alkatea, maistra, medikua, epailea, apaiza, Martina anderea, arte ederretako ikaslea, gazteak, langabeak, gaztetako maitasuna...

Angel Sagües da Irurtzango antzerki tailerreko zuzendaria eta antzezlaren egilea eta aurtengo hamasei antzezle izanen dira kultur etxeko oholtzaren gainean: Txus Abad, Peio Aldaz, Maria Eugenia Barroso, Julián Cuevas, Beatriz de Esteban, Paulina Dicheva, Miguel Eslava, Mariana Espunya, Txeli Garcia, José Ramón Irure, Lucia Muñoz, Cristina Olza, Rosa Ramón, Andoni Ruiz, Arlane Sancho, Enara Urra. Guztira, lau saio egingen dituzte: gaur, martxoak 31, ostirala, 19:00etan eta 21:00etan; bihar, apirilak 1, larunbata, 19:00etan, eta etzi, apirilak 2, igandea, 19:00etan. Sarre-
rak bost eurotan eros daitezke

Irurtzango Udaleko webgunean eta kultur etxean. Urtero egiten dituzten saio guztietan sarrerak agortuta kartela jartzen dute.

Harremanak

Birjiñe Albira antzerkigilearen gidaritzapean Altsasuko Iortia Antzerki Tailerrak antzezlana berri bat sortzen du, hutsetik. Taldea irekia da eta urtero aldatzen da, baina badira antzerkiak "harrapatu" dieten kideak ere. Aurtengo hamabi antzezle *Estrellas de la muerte* lana taularatuko dute: Juli, Alberto, Sergio, Amelia, Isabel, Beatriz, Elena, Jose Mari, Kimetz, Juana, Aitzara eta Ione. Emanaldia apirilaren 15ean, larunbata, 19:30ean, izanen da, Iortia kultur guneko areto nagusian. Sarrerak dagoeneko salgai daude sei eurotan, Iortia kultur guneko webgunean eta txarteldegian.

Estrellas de la muerte antzezlanean hiru ezezagunek autoa partekatuko dute bidaia bat egiteko. "Zehazteko zailak diren arrazoiengatik istripu bat izaten dute berezi samarra den herri batetik gertu". Herri horretako biztanleak oso ezezagunak egiten zaizkie, nahiz eta istripuaren ahalmena dela eta hilda egon beharko luketen. "Hilak! Zer ari da gertatzen? Nor da Morrigan jainkoa? Beste inor hil behar da?". Erantzunak, apirilaren 15ean.

Altsasuko Antzerki Tailerreko kideendako antzerkia "jollasteko" beste modu bat, baita lotsak alde baterako uzteko baliagarria da ere. Tailerrak ere jendea ezagutzeko aukera ematen die, eta bertan sortzen diren harremanak, Irurtzango antzerki tailerreko kideek esan bezala, bereziak dira.



BAZTERRETIK
JUAN KARLOS LOPEZ-
MUGARTZA

'Tifloteka', guztiz beharrezkoa dugun neologismoa

Lehenengo egunean testu bat itzultzeko pasa zidaten; hitzen artean bazen bat inoiz ere, ez erdaraz, ez euskaraz, entzuna ez nuena: "tifloteka".

Itzulpena egiteko unean hiztegiaren begiratzen hasi nintzen, baina ezer ez. Gero Interneten nabigatzen, eta, orduan bai, ONCeren eta Ekuadorreko Unibertsitate Politekniko baten web orrietan hitza aurkitu nuen. Hantxe adierazten zenaren arabera, *tifloteka* gune berezi bat da, biblioteka baten antzekoa, baina azken hauetan letraz idatzitako liburuak baldin badaude, tifloteketan braillez idatzitako liburuak daude, bai eta ikusmen urritasuna duten ikasleentzat ezinbestekoak diren beste baliabide anitzak ere.

Leku berean, "tifloteknologia" kontzeptua aipatzen zen eta onlineko hiztegi batean adiera jasotzen zela zioten. Berriz ere hiztegiatara joz, hitza aurkitu nuen azkenik; grezieratik zetorrela zioen, τυφλός typhlos 'itsu' hitzetik hain zuzen ere.

Tifloteknologia aurrerapen teknologikoak itsuen eskura jartzeaz arduratzen da. Kontzeptu honi loturik, erro bereko beste hitz hauek aurkitu nituen (euskaratu ditut): *tiflogia*, *tiflogikoa*, *tiflogoa*, *tifloteknika* eta *tifloteknikoa*. Denak hitz berriak niretzat.

Euskal Idazleen Elkartearen azken bileran Josu Jimenez Maiak Gorka Bereziartuari hartutako "idazkurle" neologismoa ("wreader") gogora ekarri zigun, 'irakurle den idazlea' esanahia duena. Edorta Jimenezek esan zuenez, idazleek ez badute hitzak sortzeko eta hiztegia aberasteko eskubidea, orduan nork? Hori da haien betebeharra.

Agindu horri jarraikiz, hauxe da euskaldun guztiei, eta itsuak direnei bereziki, egin nahi diden ekarpena: gorago aipatu eta inklusioarentzat beharrezkoak diren neologismo horiez gainera, bi gehiago, "tifofoia" 'ikusmen urrikoen eskubideen aldekoa' (hau erdaraz erabilia, ik. *Revista Mensual Tyflogia Hispano Americana*, 1916 eta ond.), eta "tiflotekazale" 'tifloteken laguna dena'.

Sor ditzagun *tiflotekak* gure herrietan, itzalez beteriko mundu honetako ilunbeetatik atera gaitezten eta, Bargan bezala, argia piz dadin.



Javier San Felipe Larrea argi teknikari altsasuarra. UTZITAKOA

Zinemaren fokoen atzean

Javier San Felipe Larrea altsasuarra argi teknikaria da ikus-entzunezko zenbait produktiotan. Lan jardunaldi "gogorak" izan arren, lanaz gozaten ari da. Besteak beste, "inoiz ezagutuko ez zituen tokiak" ezagutzen ari da lan honi esker

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU Hilabete eta erdi Avilan pasa du Javier San Felipe Larreak. Bertan Disney+ plataformarako proiektu batean lan egiten egon da, eta aste honetan Toledora joanen dira proiektuarekin jarraitzeko. Aurretik, besteak beste, *Vampire Academy*, *Balenciaga*, *Las Pelotaris*, *La Ermita* produkzioetan parte hartu du argi teknikari edo, zineman deitzen zaien bezala, "elektrikari" bezala. Baluarten argi teknikaria zen, eta eszendentzia hartu behar zuen unean ikus-entzunezkoen munduan lan egiteko aukera sortu zitzaion.

Iruñeko antzoki eta aretoetan argi teknikaria zen San Felipe eta aurretik ere zinemaren munduarekin harremana izan zuen ere; 2016. urtean Goya saria irabazi zuen *Hijos de la tierra* film dokumentalean lan egin zuen.

"2008tik Baluartan, Gayarren eta Iruñeko eszenatokietan nengoen eta monotoniagatik edo aldatzeko gogoia nuen". Duela pare bat urte eszendentzia hartzea erabaki zuen, eta museo batean lanean hasi behar zen. "Baina Baluartan opera egin izan duen lagun batek *Vampire Academy* telesailari buruz hitz egin zidan, eta hilabete bat telesailan lan egitea erabaki nuen". Ez zitzaion egokitzea "ezer" kostatu. "Egiten zen lana ezagutzen nuen". Azaldu duenez, telesailaren argiztapena ikuskitzaren munduarekin bat egiten zuen eszenek argiztapen "kon-

JAVIER SAN FELIPEK LAN EGIN DU: 'VAMPIRE ACADEMY', 'EL INTERNADO' ETA 'BALENCIAGA'-N

plexuagoak" behar zituztelako, eta esperientziak eraman zuen bertan lan egitera.

Hilabete bat izan behar zena zazpi hilabete bihurtu ziren, 2022ko maiatzera arte. "Bukatzean Argilun enpresak kontaktatu ninduen". Enpresa honek Nafarroan, Gipuzkoan, Bizkaian eta inguruetan egiten diren ekoizpenetan lan egiten du. Iratxeko Monastegian grabatu duten *El Internado* telesailan lan egiteko deitu zuten San Felipe. "Bi hilabete egon nintzen, maizta eta ekaina. Horrek ateak ireki zizkidan. Nire lana eta ahalmena erakusten eta kontaktuak egiten hasi nintzen".

Arte eszenikoetan argi teknikariak dira, baina zinemaren munduan "elektrikariak" deitzen direla azaldu du altsasuarra. "Baluartan dudak argiztapen mahaiak erabiltzen dudak es-

perientziagatik deitu ninduten, elektrikari bezala ez nuen esperientziarik, baina lana egiten ikasten joan naiz eta orain denetarik egiten dut". Teknologiarren garapena dela eta, produkzioetako lana asko aldatu dela azaldu du: "Lehen beste material batzuekin lan egiten zen, kable pila bat erabili behar zen. Gaur egun LED teknologiarekin aldatu da eta bi abantaila ditu: kable gutxiago eta, ni sartzen naizen tokia, tresnak modu remotoan mugitzen edo erabiltzen direla. Ni argazkilaritza zuzendariarekin egoten naiz tablet antzeko batekin eta horrekin argien intentsitatea eta abar kontrolatzen eta erregulatzen ditut".

Antzokietan edo aretoetan lan "osoago" bat egiten dutela esan du San Felipek, "diseinua, muntaia eta operazioa gure esku dago, baina zineman argazkilaritza zuzendaria buru da eta beraiek erabakitzen dute dena. Argiztapenaren eskema egina dago eta guk prestatzen dugu".

Lana

Nolakoa da argi teknikari baten egun bat? "Iristen garenean aurretik zuzendaritzak planifikazioa egin du zer grabatu behar den eta non. Planoak aurreikusten dituzte eta horren arabera argiztapena jarriko da". Materialak, fokoak eta abar jartzen dituzte. "Zinemaren magia da trikimailua ez ikustea, ez nabaritzea. Pentsatzea guztia erreala dela".

Produktio bakoitza mundu bat dela dio San Felipek. "Asko bidaiatzen da". *El Internado* telesailan lan egin ondoren, *Balenciaga* telesailarekin Parisen egon zen, ondoren *Las Pelotaris* seriearekin Mexikon, Madrilan, Donostian, Biarritzen eta abar grabatu zuten, *La Ermita* filmean parte hartu du ere, Nafarroan grabatu dena, eta Valentziako lagun batekin Tarragonan eta Castellonen gizon otso baten inguruko pelikula bat grabatzen egon da. Azken asteetan Madrilan, Avilan eta Toledon lan egiten ari da. "Avilan harresien

ZINEMAREN MUNDUA LAN "INTERESGARRIA ETA MOTIBAGARRIA" DA, ETA ALDI BEREAN "GOGORRA"

ondoan gaude, ikusgarria da. Beste bizimodu bat da. Badira tokiak beste modu batera inoiz ezagutuko ez genituzkenak". Motibagarria dela esan du.

Lan "gogorra" dela aitortu du ere. "Hamabi orduko lanaldiak izan ohi dira, lekualdaketeekin. Grabazio tokira joateko ordu bateko bidaia egon daiteke". Alde horretatik "oso gogorra" dela esan du, "egon daitezke egunak eramangarriagoak direnak", baina fisikoki ere gogorra dela esan du. "Ez dakit edozein pertsonak egin dezakeen". Sakrifizio pixka bat eskatzen duen lana da. Bestetik, gehienbat kalean egiten da eta *Vampire Academy*-ren kasuan gauez grabatzen zuten eta negua zenez hotza pasa zuten ere.

"Beste bizi kostu bat dauka ere eta da sei hilabete-edo etxetik kanpo zaudela. Nik ez dut bikotekiderik ezta seme-alabarik eta alde horretatik egin dezaket ere. Ikuspuntuaren arabera da. Agian, seme-alabak dituen beste pertsona batek ezingo luke egin edo baloratu beharko luke behintzat". Irailean eszendentzia luzatu edo ez erabaki behar du, eta momentuz ez du argi zer egingo duen.

Antzokian egiten zuen lanarekin alderatuta, aldiz, hobera egin du: "Bertan ez duzu plangintzarik, ohitzen zara, baina ezin duzu lagunekin planik egin, jendea deskantsatzen dagoenean zu lanean zaudelako". Orain asteburuak libre ditu eta hurrengo hilabeteak antolatuta, "beste dimentsio batean nago". Egunotan etxetik urrutira grabatzen dagoelako, bestela asteburuaren herrira itzuliko litzateke. "Orain ama lehen baino askoz gehiago ikusten ari naiz". Deskantsatzeko baliatzen ditu asteburuak. "Motibatuta egon behar gara, eta motibatzen hasi naiz berriz. Lan egiteko modu bat da, jende berria, proiektu interesgarriak... eta ekonomikoki ere hobea da".

Nafarroan zinemaren munduan lan egiten duten langileen elkarrekin sortu dute. "Azkenean, geroz eta jende gehiago dago honetan lan egiten eta oso ongi dago elkartzea". Besteak beste, Altsasun Aritz Leoz, Sara Mazkieran eta Izaskun Artigas (*Vampire Academy*-n topo egin zuten) daude. "Ezagutzen joan gara eta orain elkarrekin ikusiko da bada-goela lana".

"Patriarkatuan bizitzea ez zaio inori komeni"

Asier Arizkorreta Hurtado EMAGIN pentsamendu kritikoa feministak sustatzen duen elkartearen kidea da eta apiriletik azarora arte maskulinitateari buruzko tailerrak emanen ditu Sakanako Mank-eko Lakuntzako egoitzan eta Altsasuko Gure Etxean

E. C. M. eta E. R. B. SAKANA

1 Zer helburu ditu maskulinitateari buruzko tailerrak?

Gizonezkoak emakumeekiko ditugun pribilegioak eta erraztasunak pentsatzeko dira. Gai eta arlo pila bat aurkezten zaizkigu: feminismoan zer egin dezakegun, zein da gure papera, autokritika pixka bat egin eta patriarkatua guri ere ez zaigula komeni aztertzea. Patriarkatuak gure aurka jotzen du ere, inori ez zaio komeni horretan bizitzea.

2 Zergatik parte hartu behar dute gizon sakandarrek?

Hutsune bat dago. Feminismoan emakumeak egon dira lehen lehen, eta gizonak atzean gelditu gara; ez diegu gure betebeharrak heldu. Aukera bat da horri heltzeko. Saiotara oso gogotsu datoz, baita urduri eta beldur pixka batekin ere; baina etorri badira da zerbait mugitu zaielako eta behar bat ikusi dutelako. Tresna berriak aterako dituzte, emakumeekin zein gizonekin erlazionatzeko tresna osasuntsuagoak, eta prozesu edo proiektu politiko eta herriko konpromiso bat martxan jarriko dute. Polita izango da.



Asier Arizkorreta Hurtado maskulinitateari buruzko saioretako irakaslea. UTZITAKOIA

3 Bederatzi saio dira, apiriletik azarora, Lakuntzan edo Altsasun.

Eta espazio seguru batean, non ez dira epaituak izango. Barruko gauzak landuko ditugu eta eroso sentitu behar dira edozein gauza esateko, astakeri bat bada ere.

Hortik helduko diogu eta landuko dugu. Guztietan azalpen teoriko bat egongo da eta gero lurren erantzunak eta errealitatearekin ekartzen joango gara. Adibide pertsonaltik ere. Taldearen konpromisoa ere oso garrantzitsua da.

4 Maskulinitate berrien beharrez galdetzen hasiko zarete.

Galderak egitea tresna izugarria da. Batzuetan ez dugu lortuko galderak erantzutea eta beste batzuetan gehiagorekin aterako gara. Maskulinitateak aztertuko ditugu: zer da gure maskulinitatea, zer behar daukagun aldatzeko edo ez, zer suposatzen duen aldatzeak edo birpentsatzeak... Ez badugu ezer egiten gure pribilegio postuan jarraituko dugu.

5 Sexu-genero sistema izan da bigarren gaia.

Inposatutako sistema batean bizi gara, kapitalismoa edo demokrazia bezala: sexu-generoa. Sekulako eragina du gure bizitzan. Nola osatzen den, zer estereotipo sortzen dituen, nondik datorren ikusiko dugu.

6 Barrura begiratzeko indarkeria kanporatzeko. Hirugarren saioa sakona, ezta?

Gure maskulinitate bizitzaren esparru desberdinetan ikusiko dugu, eta ikasitakoaren arabera nola kanporatu, zer tresna erabili...

7 Hausnarketatik gorputzera pasako zarete laugarren saioan.

Gure gorputzean zentratuko gara. Batzuetan ez gara kontziente gure gorputzak zer inpaktu daukan. Nola mugitzen gara, besteen aurrean nola azaltzen gara, haserretzen garenean gure gorputzak indarkeria sortzeko tresna ere bada nahiz eta nahi ez izan.

8 Maitasun erromantikoa beste gai bat da.

Beste gai potolo bat. Patriarkatuan maitasun erromantikoa oso sartuta eta onartuta dago, min asko sortzen duena. Horri

erreparatuko diogu. Harreman sexu afektiboak baditu bere estereotipoak ere.

9 Feminismoan murgilduko zarete.

Saio teorikoena izango da. Guk daukagun pribilegio handi bat da edozein arlotan erreferentziak ditugula. Gure ardurak da ikustezintasunarekin amaitzea. Horretarako ezagutu behar ditugu beste erreferenteak daudela. Feminismoaren errepasso bat eginen dugu, eta, gizonezko erreferenteak erreparatuko ditugu, ea hor egotea merezi duten ikusteko.

10 Zertan datza gizonezkoen korporatibismoa eta anaitasuna?

Gizonen artean gizonak izateagatik komentario batekin ere gauza asko ulertzen ditugu. Hori oso lagungarria izan daiteke, baina ez dugu modu positiboan erabiltzen. Guztiz kontrakoak, zapaltzeko egiten dugu. Kuadrillak, laguntasuna... Beste gai potolo bat da. Batzuetan familia kideei eta lagunei aurre egin behar diegu, eta asko kostatzen da. Arlo horietan zer karga matxista eta zer tresna mugitzen diren ikusiko dugu.

11 Amaitzeko, eraso sexistaren baten aurreko jarrera eta konpromisoak hartuko dituzue.

Eraso baten aurrean askotan agertzen zaigu heroien ideia; nik honekin akabatuko dut. Horrek ez du asko laguntzen. Sekulako meloia irekitzen dugu: zer egin erasotzaileekin eta benetan nola lagun dezakegun. Beharrezkoa da. Saiokin bukatzeko eta prozesua ixteko, prozesu bat delako, eztabidatzeko gelditu diren gaiak landuko ditugu eta konpromisoak hartuko ditugu. Oso garrantzitsua da konpromisoak hartzea.

WEB DISEINUA **GRAFIKOA** **ENPRESETARAKO EUSKARRIAK**
LIBURU ALDIZKARI **MAKETAZIOA** **KARTEL PAPER** **GINTZA** **APLIKAZIOAK**
IRUDI KORPORATIBOAK **KOMUNIKAZIOA** **PUBLIZITATEA**

619 821 436 · 948 564 275 · info@gkomunikazioa.eus · Foru plaza, 23-1. Altsasu

gik
 DISEINUA ETA
 KOMUNIKAZIOA